

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

## 25 URTE UHINAK EUSKARAZ ALAITZEN

Hizkuntza bai ez da goltzen  
ez dakitenek ikasten ez dutelako,  
dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik.



# Ametsetako irratia

Gaur duela 25 urte egin zuen bere lehenengo emisioa **BELEIXE IRRATIAK**. **GUAIXE** hilabetekaria sortu eta bost urtetara sortu zuen Bierrik Elkartek, gaurkotasunezko informazioari bide eginez

## Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

1999ko maiatzaren 3an **BELEIXE IRRATIA**ren 107.3 FMtik lehenengo uhinak zabaldu ziren Sakanan. Gaur egun Etxarri Aranazko gaztetxea dagoen albo bateko gela batetik egin zen lehenengo emisioa. Aitziber Etxaiz Soria altsasuarra eta Alfredo Alvaro Igoa etxarriarra izan ziren lehenengo esatariak. Egun horretan piztu zen irratia, baina aurretik "sukalde lan handia" egin zela gogoratu du gaur egungo **GUAIXE**ko erredaktore burua den Alvarok: "GUAIXEko duela 25 urte saila egitea tokatzen zait, eta horren ondorioz badakit atetik gutxi gorabehera bi urteko lana egon zela. Irrati Batzorde bat sortu zuen Bierrik Elkartek (gaur egun **GUAIXE FUNDAZIOA**) eta bertan Erkuden Flores, Olatz Berastegi, Rafa Blanco eta beste hainbat zeuden". 1996an hasi zen lanean irratia martxan jartzeko batzordea.

1994ko abenduan, **GUAIXE** aldizkaria sortu zuten kazetaritza ikasten ari ziren Olatz Irizarrek, Amaia Amilibiak eta Etxaizek, baina irratia soreran altsasuarra ez zela egin gogoratu du. "Ni kazetari bezala sartu nintzen irratian, ez nintzen sortzailea izan". Batzordean parte hartu ez zuela esan du. Alvarok ere ez zuen irratia batzordean parte hartu, baina garai horretan Zirikezen? Etxarri Aranazko euskara taldean zegoen, eta bertako kideak bileretara joaten ziren: "Iñaki,



Alfredo Alvaro eta Aitziber Etxaiz Beleixe Irratiko lehenengo esatariak.

Eneka eta abar batzarretara joaten ziren eta gero komentatzen ziguten bazegoela nahi bat". Lehenengo ahaleginean, Alvarok azaldu duenez, Sakanako Mankomunitatearen lizentziarekin aurrera egiteko ideia egon zen, "baina bide horrekin aurrera egin ez zuenez, Bierrik Elkartek hartzea erabaki zuen, eta aurrera egin zuen".

**BELEIXE IRRATIA** hasieratik Etxarri Aranazti lotuta egon da, izan ere, irratia lizentzia udalarena da. "Hor jarraitzen dugu, egoitza ere hasieratik utzi digu Etxarrik. Eskerrik asko, besterik ezin da esan", esan du Alvarok. Irratiak beste motatako lizentzia bat beharko zuela gaineratu du, "baina beno". Kultur etxeko egoitzatik 2009an gaur egun dagoen udaletxearen eraikineko egoitzara pasa zen **BELEIXE IRRATIA**. Hasieretan irratia muntatzen "oso lan handia" egin zuten Garraxiren bidez, Hala Bedikoak eta Eztanda irratiko sortzaileak eskertu nahi izan ditu erredaktoreak ere.

## Giroa

**GUAIXE** hilabetekari moduan sortu zen. "Hilabetekaria zenez egunerokotasuna galdu egiten zen, albiste asko etxera iristerako oso zaharrak gelditzen ziren, eta beste eskualdetan irratia funtzionatzen zutela ikusita, irratia sortzea ikusi zuten", azaldu du Alvarok. Beharra zegoela gaineratu du Etxaizek. Hortaz, aldizkariak bete ezin zuen hutsune informatiboa estali nahi izan zuen irratia. "Notiziak modu azkar batean euskaraz jasotzeko aukera ematen zuen irratia, eta horrela egin genuen".

Garai horretan "erraza" zen irratia sortzea, "tokiko irratia eta aldizkariak, ez txanpinoiak bezala, baina sortze giroa bazegoen". Esan Erran irratia **BELEIXE** baino sei hilabete lehena sortu zen, Altsasuko Gaztetxearen Garraxi irratia urte bat lehena eta urte berean Iturmendiko Eztanda irratia sortu zen. Etxaizek, hain zuzen, Esan Erranen praktikak egin zituen.

"Larraitzargor Udalera joaten nintzen egunero, eta hor Txari eta Fermintxorekin egoten nintzen. Oso irrati polita zen". Ederki pasa zuela gogoratu du altsasuarra.

**BELEIXE IRRATIA** proiektua martxan jarrita, proiektuaren eta mikrofonoaren aurrean jarriko ziren esatariak aurkitu behar zituen Bierrik Elkartek, eta horretarako proba bat egin zuela gogoratu dute Alvarok eta Etxaizek. "Azterketa bat egin genuen, Altsasuko gaztetxeko irratia estudioan. Zuzeneko bat eginarazi ziguten, eta nik magazine bat aurkeztu nuen". Itoiz taldearen *Alice* kantuaren baitan egin zuen irratsaioa Etxaizek, dena prestatuta.

Alvaro, aldiz, probara gaixo joan zen: "Gogoratzen dudana gauza bakarra da dezima batzuk nituela, eta ez nuen bururik ezertarako pentsatu nuen inprobisatuko nuela eta irudimena erabiliko nuela. Irratian irudimena erabiltzea tokatuko zitzagula iruditu zitzaidan". Garraxiren estudioan egindako proba praktikoren aurretik ere txosten bat aurkeztu behar izan zuten. "Aitziberrek irratian praktikak egin zituen aurretik, baina nire irudipena da azken momentuan esan zutela: zu, barrura". Hasiera batean Etxaizek izan behar zuen esataria, "eta azkenean erabaki zuten bi pertsona egon behar ginela. Hori bai zela berria". Bi ahots desberdinekin mugimendua ematen ziola eta dinamikoagoa zela esan du Etxaizek.

## Irratia

Lehenengo emisioan auzatea egin zutela gogoratu du Etxaizek. Jose Mari Satrustegi, euskara teknikariak, Bierrik elkartearn inguruan mugiltzen ziren lagunak eta kulturaren munduan zegoen jendea gonbidatu zituzten lehenengo irratsaio horretara. "Aurkezpen eguna izan zen". Alvarok ez du lehenengo egun hura gogoratzen, baina bai lehenengo astea: "Gela horretara kultur etxetik sartzen ginen, baina kalera ate bat behar genuen, eta



## EGOKI

Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea




asteen zehar udaleko langileak lanean egon ziren, pareta botatzaren, eta ate bat egiten".

Hasierako emisioetan notiziak eta editorialen berri ematen zuten irratiaren uhinen bidez. Egunko egunkariak hartu, eta albisteak berridazten zituzten, baita egunkarietako azalaz azaldu ere. Sakanako albisteren baten berri ematen zuten, eta elkarrizketak egiten zituzten ere. Bi orduko saioa egiten zuten, 10:00etatik 12:00etara. Zuzeneko emisioa bukatzen zenean Euskalerrria irratiarekin bat egiten zuten. "Bagenuen horrelako eskaner bat irratiak hartzen zituena". Ondoren, saioa pixka bat luzatu zuten konturatu zirelako jendea ikastetxeetatik ateratzen zenean lehiaketetan parte hartzeko deitzen zutelara. "Gaur egun, baten bati deitu diodanean konturatu naiz lehiaketetara aurkezten zela", gogoratu du Alvarok.

"Entzuten zen.

Erreferentzia izaten zen dendetara joaten ginela eta entzuten arizirela". Ere "oso mugatua" entzuten zela aipatu du kazetariak. "Eta ez zen oso ongi entzuten, interferentziak baziren", gaineratu du Etxaizek. Irratia "oso zapaldua" zegoela esan du Alfredok, "irrati berri bat sartzen bazen, zapaltzen gintuen, eta horrekin ere borrokatzen aritu ginen". Azkenean, antena beste toki batera eramatea lortu zuten. Etxaiz: "San Migelera ere joan ginen eta ezkutuan zegoen antena bat berrerrabili... Horretan ere eskulanean ibili gara". Material asko berrerrabili izan dute.

Nola egiten zuten XX. mendearen amaieran irratiaren emittitzeko eta irratsaioa prestatzeko? "Kasetak erabiltzen genituen. Brutoan izaten zen. Ez zegoen editatzerik", azaldu du Etxaizek. Telefono mugikorrak garai horretan agertzen hasi ziren, baina oso gutxi ziren. "Elkarrizketa bat egiteko aurreko egunean gelditu behar zinen, eta ez dakit zer ordutan deituko zeniola geratzen zinen, baina deitzen zenuen edo ahaztuta zuten edo guri goizaliatzen zitzaigun eta ezin izaten genuen deitu...", gogoratu du Alvarok. Saioa bukatu eta berremisioak egin ondoren, gehien-



bat musika jartzen zutelara esan dute, eta musika jartzeko modu aleatorioan mugitzen zen sei CDko tresna bat erabiltzen zuten. "Kanta batetik bestera salto egiten zuten".

#### Aldaketak

**BELEIXE IRRATIA** sortu eta urtera Irrati Euskaldunen Sarea

**"HILABETEKARIAN EGUNEROKOTASUNA GALDU EGITEN ZEN; IRRATIA SORTZEA IKUSI ZUTEN"**

sortu zuten Esan Erran eta Aralar irratiarekin, "gaur egun oraindik asko baloratzen dena". Garaian ere errekonozimendua jaso zuten, eta 2001. urtearen hasieran proiektuak merezimenduko Argia Saria jaso zuten. "Oso oroitzapen politak" ditu Etxaizek: "Garai horretan sagardotegietako publizitatearen truke bertan elkartzen ginen eta bazkari handiak egiten genituen. Nafarroako irratiak elkarlanean. Giroa oso etxekoa zen; profesionalizatzeko bide horretan oso naturala eta lanerako beti prest". Alvaro: "Genituen baliabide prekarioekin lortzen genuen bi ordu elkarrekin emittitzea".

Mende eta milurteko berrarekin aldaketak izan ziren **BELEIXE IRRATIA** ere. Aitziber 2001. urtean Euskadi Irratira joan zen, eta orduan Maider Betelu Ganboa, gaur egungo **GUAIXE**ko kirol arloko erredaktorea, sartu zen. "Aurretik, **GUAIXE** Amaia Amilibiaren urtebeteko baja betetzen egon nintzen, hilabetekariaren arduradun. Baja bukatutakoan berehala deitu ninduten **GUAIXE**-tik, esateko Aitziberrek utziko

**IRRATI EUSKALDUNEN SAREA SORTU ZUTEN, "GAUR EGUN ORAINDIK ASKO BALORATZEN DENA"**

zuela, eta ea irratiaren bere ordeztu aritu nahi nuen". Ordura arte Maider ez zen sekula irratiaren aritu, "soilik elkarrizketatu gisa", baina denek animatu zutelara esan du: "Probataz erabakien". Alvarok erakutsi zion aparailuak nola erabiltzen ziren, "gogoa dut norbaitek telefonoz deitzen zenean argi gorri bat pizten zela. Beti irudi hori etortzen zait burura". Nahiko "hitzontzia" denez, aitortu du, azkar egokitu zen medio berrira.

**BELEIXE IRRATIA** "tarte handia" pasatzen zuten albistegirako artikulak idazten eta, alde horretatik, prentsaren munduan, "nolabait", jarraitu zuela esan du Beteluk. "Irratia oso bitxia iruditu zitzaidan, eta aitortu behar dut niretako komunikabiderik politena dela, alde handiz; berehalakotasun hori, gertutasun hori, inprobisazioa, musika -ni musikazale amorratua naiz-, entzuleak.. Guztia batuta niretako irrati bikaina zen". Mikrofonoaren aurrean "eroso" sentitu dela esan du kazetariak. "Nolabait, ahaztu egiten zait atzean jendea dagoela, ez naiz urduri jartzen, eta lasai aritzen naiz".

#### Astekaria

Beteluren sartzearekin, 2001. urtearen inguruan, "esan ziguten **GUAIXE** hilabetekari bezala oso ongi zegoela, irratiaren ere oso ongi zegoela, baina irratiak esaten dituenak haizeak eramaten dituela. Errealitate hori paperera eraman behar zela esan zuten: hor sortu zen **OIXE**". Beraz, **GUAIXE** hilabetekaria zen, **OIXE** aste-karia eta **BELEIXE IRRATIA** egunero emittitzen zuten. Momentu horretan ere Altsasuko Foru plazaren 23 zenbakian dagoen egoitza eraikitzen ari ziren ere.

Alvaroren zalantza zen ea beteko ote zuten **GUAIXE** eta irratiaren Sakanan gertatzen zirenekin: "*Diario de Noticias*ek eta *Diario de Navarra* orri bat eskaintzen zioten Sakanari, Euskaldunon Egunkarian Nafarkaria publikatzen zuten eta Egin ere bazegoen, Sakanako albisteak ateratzen zituztenak". Betetzen zuten, bai. "Gero papera gainezka gelditzen zen, eta papera gelditzen zenez, **OIXE** eta **GUAIXE** fusionatzea erabaki zuten".

HURRENGO ORRIAN JARRAITUKO DU »

AURREKO ORRIAN HASI DA »

Lan handia egiten zutela esan du Beteluk, "astekaria sortu zenean, are gehiago. Lan handiko urteak izan ziren, baina garai hartako oroitzapen oso onak ditut".

**BELEIXE IRRATIA** goizez eta **OIXE** astekaria arratsaldean egiten zuten bi erredaktoreek. Alvaro: "Dinamika egiten hasi ginenean laguntzaile asko egon ziren, eta ni Ruben Imazekin gogoratuko naiz, maketazioan laguntzen egon zelako. Berak erakutsi dit dakidana, eta orduan han ibiltzen ginen". Hasieran biak batera egoten ziren, baina gero astero batek hartu zuen **OIXE** egitearen ardura. "Horrela egon ginen; ikusi zuten idazten gurela, gutxi gorabehera, txukun, eta esan ziguten idaztera pasako ginela. Irratia utzi eta idaztera". 2004an bi medioak fusionatu zituzten eta **GUAIXE** astekaria sortu zuten.

Alvaro eta Betelu "oso gustura" zeuden irratiaren, gogoratu du Beteluk. "Pena eman zidan irratiaren utzi eta Altsasuko bulegora etortzea **GUAIXE** berriaren lan egiteko". Hilabetekaria motz geratzen zen, albisteak zaharkituta... "Alfredo eta biok irratiaren egunero albistegia prestatzen gurenez, horregatik pasa ziguten **GUAIXE** berriaren lan egitera, albisteen egunerokotasuna kontrolatzen gurelako". Tania Arriagak hartu zuen **BELEIXE IRRATI**aren ardura. "Saltoa niretako ez zen oso handia izan, ezagutzen nuen medio idatzira pasa nintzelako", esan du Beteluk.

**GUAIXE** hilabetekaria, **OIXE** astekaria, ondoren **GUAIXE** astekaria bihurtu zirenak, eta **BELEIXE IRRATI**aren eguneroko irratsaioa... "Eta orduan esaten gurenez, eta telebista?". Telebista proiektu bat izan zela gogoratu du Etxaizek: Geoxo. Izena, behintzat, jarri zioten. Alvarok azaldu duenez ideia zerbait landu zen, baina "oso zulo handia" zela ikusi zuten.

Aitziber Etxaiz, Alfredo Alvaro, Maider Betelu, Tania Arriaga, Gorka Ovejero, Mikel Mundiñano, Natalia Cobo, Erkuden Goñi, Fermintxo Gartxitorena, Larratiz Amadoz, Joseba Andoni Beltza eta Oihana Gallo eta Eneida Carreño. Asko izan dira 25 urte hauetan **BELEIXE IRRATI**aren mikrofonoen atzean egon diren esatariak. Gaur egun Carreño da Beleixe Irratiko gidaria.



Sakanako irrati euskaldunera "kasualidadez" iritsi zela esan zuen Carreño; iragarria ikusi zuen eta proba egitera animatu zen. Duela hogeita bat urte izan zen. Ondoren Gallo sartu zen, eta bien artean "oso ongi" moldatzen ziren. Irratiaren formula urteekin ezer gutxi aldatu zen; goizeko magazina egiten zuten: albisteak, prentsa,

**ASKO IZAN DIRA 25 URTE HAUETAN MIKROFONOEN ATZEAN EGON DIREN ESATARIAK**

elkarrizketak, musika saioa, agenda...

2009. urtean *beleixe.net* eta *guaixe.net* webguneak aurkeztu zituzten. Garai horretan ere Berrrik elkartearen fundazioa bihurtu zen. 2012. urtean **BELEIXE IRRATIA** ostiraletan asteko erreposoa egin eta asteburuan egongo zirenen berri emateko ordu bateko saioa emititzen hasi zen eta *guaixe.net* bidez emititzen hasi zen, eta Irrati Sarean Esan Erran irratiaren ordez Karrape sartu zen. 2018. urteko azaroan **BELEIXE IRRATIA** eguneroko zuzeneko emisiora itzuli zen, 10:00etatik 12:00etara, FM107.3an eta

*guaixe.eus* webgunean, Carreñoaren gidaritzapean.

#### Irratiaren bizitza

Etxaizek gogoan ditu egunkariak eta editorialak irakurtzen zuteneko momentu horiek. "Eta gogoratzen dut nola Alfredok apun-

**"SORTZEA ERRAZA DA, ZAILENA MANTETZEA DA; ESKERRAK EMAN HEMEN ZAUDETENOI"**

tatzen zuen dena papertxo txikietan eta koaderno bazterretan, eta pentsatzen nuen nola demostratu irakurtzen zuen gero". Etxaizek erakutsi zioten letra handiz eta txukun prestatzen gidoiak, "gehienbat ongi irakurtzeko, beti esaten zuten inprobisaziorik hoberena paperean zegoena zela". Euskalerrria irratiako Mikel Bujandak "eskola" sortu zuela esan du Alvarok.

Alvarok beti gogoan izango duene bat gogoratu du: 2003. urteko otsailean Euskaldunon Egunkaria itxi zutenean. "Garai horretan inpresora bat gurenez eta korrika etorri nintzen kartelak inprimatzera kaleetan jartzeko".

Beteluri garai hartako pasadizo asko datozkio burura: "Gozozale amorratuak gara Alfredo eta biok, eta gogoan dut beti Nocilla ontzirenen bat ezkutatu gurela galletekin jateko. Gogoan dut ere Andra Mari ikas-

tolakoak etortzen zirela euren saioa egitera, Aralarko irratiako Martinekin eta Esan Erraneko Fermin txorekin eguneko solasaldia oso ongi pasatzen gurenez, jendeak zorion agurren tartean deitzen zutenean...". Gauza txikiak direla, baina oroitzapen handiak, gaineratu du.

25 urte atzera eginez, bidea "oso luzea" izan dela esan du Alvarok. "Zaharra goak" sentitzen direla gaineratu du Etxaizek: "25 urte gehiagorekin eta beste ardurerekin. Gauza aldatzen da". **GUAIXE**ren 25 urteurrenarendako egindako *Batzen gaitue*na dokumentalean aipatu zuena gogora ekarri du Etxaizek: "Sortzea erraza da. Orduak sartzea da, eta sortu sortzen da. Zailena mantentzea da. Horretan eskerrak eman behar zaizkie hemen zeundeteno.

Guk bai sortu gurenez, baina utzi ere utzi gurenez. Alde horretatik nire esker ona hemen biltzen zareten guztiei. Horrek duelako benetan garrantzia". "Izugarri" poztzen du bai irratiak bai aldizkariak 25 urte muga pasatzea. "Ez da erraza, baina hor egon da jende kementsua eta ona". Alvaro ere "puztua" sentitzen da proiektuak jarraitzen duelako. "Ametsetako **BELEIXE IRRATIA** nolakoa izango litzateke baliabide gehiagorekin pentsatzen dut, eta amets horretara gerturatuko gara".

25 <sup>URTE</sup>  
UHINAK  
EUSKARAZ  
ALAITZEN

Urte hauetan guztietan  
*Beleixe irrataria*  
*piztu duzuen guztiei,*  
eskerririk asko!

107.3 FM



107.3 FM  
**beleixe** 25 <sup>URTE</sup>



ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

## Gizarte erronka: sexu abusuak

Azkenaldian, sexu abusuei buruz ari gara entzuten. "Si es sí" lege berria dela eta, norberaren baimena aldarrikatzerakoan, adibidez. Ba al dakigu zertaz ari garen? Izan ere, edozer gauza eraso bada, azkenean, ezer ez da eraso bat, honek garrantzia galdu eta hutsaltze izugarria emanez. Beraz, gaian sartzearen: sexu abusuak, bortxaketa, intzestua, prostituzio behartua, sexu konnotazioa duten ukituak, fisikoak ez diren exhibizionismoa, voyeurismoa, irainak eta pornografiaren ikuste behartua ere erasoak dira. Deserosoa den gaia honakoa!

Badirudi holakoak bakarrik arazo mentalak eta gizartetik al dauden pertsonen egiten dituztela, leku ilunetan kokatuak. Errealitatetik urruti, erasotzaileen %90-a biktimaren hurbilekoa da, familiakoa, laguna ala bikotea izanik. Horrek, emakumeen %23 eta gizonen %17 sexualki abusuak jaso dituztela dakar, uste baino gehiagotan, bistazko eta ezagunak diren lekuetan. Gainera, gertatutakoan, familiek gehienetan ez dakite nola erantzun, lotsagatik ezkutatu eta biktimari errua botatzen diote. Honen guztiaren ondorioak: elikadura nahasteak, hipersexualitatea, autolesioak, droga edo alkoholaren kontsumo mingarria, autoestimuaen jaitsiera, oroimen arazoak, erlazioatzeko zailtasunak, gaixotasun autoimmuneak ala suizidioa izan daitezke, besteak beste. Ez da gutxi!

Nire galdera da, botere erlazioen dantzan mugitzen garen gizarte honetan, jasotzen al dugu helduok beharrezko edukazio sexualik, hau guztia kudeatu eta ganoraz egin ahal izateko? Abusatzeko aukeraz kontziente al gara?

## HARA ZER DIEN

### Zergatik eta zertarako Berdintasunerako Plana?

#### SAKANAKO BERDINTASUN ZERBITZUAK

Gauzak ondo bidean, Altsasuko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Plana onartuko du Udaltzatzaile hil honen amaieran. Baina zer dira eta zertarako balio dute berdintasunerako planek?

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko politika publikoen garapenean, 90. hamarkadarekin batera, inflexio puntu garrantzitsua gauzatzen da, eta sexuen arteko berdintasunera bideratutako erakunde publikoen jardura politikoa neurri handi batean baldintzatuko duen kontzeptu berri bat hasten da lantzen: genero mainstreaming edo genero zeharlerrotasunarena.

Kontzeptu hau 1995. urtean sartu zen nazioarteko agenda politikoa Nazio Batuen Erakundeak Beijingen egin zuen Emakumei Buruzko Nazioarteko IV. Konferentziaren eskutik.

Estrategikotasunean eta integraltasunean oinarritutako ikuspuntu erabat berritzailea ekarriko du. Izan ere, politika publikoen ustezko neutraltasun hori zalantzan jarri, eta horiek emakume nahiz gizonengan duten eragin ezberdina azalaraziko du. Horrela, erakundeen jardura goitik behera eraldatzea bultzatzen du esku hartze publikoko eremu, maila eta fase guztietan emakume eta gizonen bizi baldintza, nahi, behar eta egoerak modu sistematikoan kontuan hartzea dakarrelako.

Planteamendu berri honen ezaugarri nagusia zera da: sexuen arteko desberdinkerien konplexutasuna bere osotasunean onartzen dela. Hau horrela izanik, ezberdintasun hori osatzen duten osagai guztiak kontuan hartuko dituen planifikazio orokorraren beharra nabarmenduko da beste edozerren gainetik.

Genero zeharlerrotasunaren aplikazio praktikorako tresna gisa, berdintasun legeak eta horiekin batera berdintasunerako planak agertzen zaizkigu. Berdintasunerako planak politika publikoen tresna dira, erakundeetan eta erakundeek jendarte parekideago bat lortzeko ezartzen dituzten helburuak eta burutu beharreko ekintzak biltzen dituen. Planak bere horretan ezin dira helburu bilakatu, jendarte parekideago bat lortzeko bitarteko baizik; honenbestez, etengabeko hobekuntza prozesuaren abiapuntu bezala ulertu behar dira. Honenbestez, Altsasuko Berdintasunerako III. Plana genero zeharlerrotasunean sakontzen jarraitzeko baliagarria izanen da, eragile guztien arteko lankidetzara, parte hartzea eta adostasuna izanen baititu ardatz.

## GUTUNA

### Agur, Maribi

#### ARITZ IGOA GOÑI

Gerraosteko izu eta eskasian aurrera egitea izan zen Maribiren lehen bizi ikasgaia. Gaztaroan, langile eta askatasunen aldeko borrokek zipriztinduta, frankismoaren orri beltza pasa eta etorkizun hobego baten peshizan. Ilusioz gainezka ekarri zituen seme-alabak, berak izan zuena

baino bizitza hobegoa eskaintzeko gogo biziarekin. Maitasunez hazi zituen seme alaba horiek beraien bidea ibiltzen hasi ziren. Maribiren ahaleginei esker sortutako Etxarriko ikastolan, besteak beste.

Aitzitik, itxuraldatua agertu nahi bazuen ere, betiko zapalkuntzarekin egin zuten topo, eta etxeko sehaskan edoskia zuten borroka emariari heldu zioten. Ama beti bidelagun izango zuten.

Konplize. Amari kostako zaio ulertzea borrokan engaiatu den seme edo alabaren barne bulkada. Barru barrutik galdera batek kolpatuko dio bihotza..... Zergatik konplikatuko horrela bizia, seme? Baina malkoekin batera irentsiko du galdera hau ere. Berak agian ez du ulertzen, baina badaki maitasunak, eskuzabaltasunak eraman duela alaba edo semea borrokan konprometitzera. Badaki borrokarako hautua egin duen semea denetan

sentiberena dela, umetan galdera gehien egiten zituena, negar gehien egiten zuena, injustizia ororen aurrian asaldatzen zena.

Eta semea preso ikusi duenean, amak berarekin bat egitea erabakiko du. Ama izango da presoak kalean dituen begi, belarri eta mingain leial eta zintzoena. Ama zapia lepora lotu eta kalera aterako da, atez ate ibiliko da entzun nahi duen guztiari semearen egoera eta borrokaren berri ematen.

Elizara joanen da, eta udaletxera, eta herriko elkarteak bisitatuko ditu.

Semea libre ez ikustearren arantzarekin joan zara. Hori zurekin dugun zorra. Gainontzekoan, harro egoteko modukoa da hemen utzi duzuna, hemen utzi dituzunak. Ama baino askoz gehiago izan zara, Maribi.

Eskerrik asko zure borrokagatik, eskerrik asko Herria egiteagatik! Garaipen egunerarte!

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436

Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



Bakaikun euskaraz dioen pankarta plazan. ARTXIBOA

## Bakaikuko Udalak UEMAn sartzea erabaki du

Bakaikuarren kontzientziazioan eta ahalduzko pausoak egin nahi ditu udalak UEMArekin batera

### BAKAIKU

Bakaikuko Udalak Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kide izatea erabaki zuen apirilaren 30ean. Bakaikuk 343 biztanle ditu eta euskaldunen indizea %71,25 da. Egoitz Urritza Lazkoz alkateak azaldu duenez, "ezagutzaz harago, erabileran eragin behar dela iruditzen zaigu. Horregatik, UEMArekin esperientzia Bakaikurako ere bide-lagun izan daitekeela sinesten dugu. Udala euskalduntzeko laguntzaz aparte, herritarren kontzientziazioan, hezkuntza proiektuan eta beste hainbat konturekin laguntza ere ederki etorriko zaigu".

Alkateak nabarmendu duenez, "ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea nabarmena da". Horregatik, udalak "herriko erabileran eta ezagutzan bultzadak ematen jarraitzeko asmoz" lan egingen du. Urritzak gaineratu

duenez, "Bakaikun euskararen erabilerari bultzada emateko asmoz erabaki dugu UEMAn sartzea eta, horretarako, laguntza ederra izango da haren esperientzia. Gora egiteko baliabideak beharrezkoak ditugu, edozein aldaketen aurrean zaurgarriak garelako oraindik". Horregatik, Bakaikurako "beharrezkoa da hizkuntza politika sendo bat egitea, udalerri euskalduna izaten segi nahi badugu".

UEMAk maiatzaren 18an Lesakan egingen duen Batzar Nagusian onartuko ditu Lakuntzaren eta Bakaikuren eskaerak. UEMAk kide diren udalerri guztietan, biztanleen %70etik gora euskalduna da. Guztira 110 udal eta 345.500 herritar dituen euskararen arnagunea. Haietatik bost dira sakandarrak: Arruazu, Arbizu eta Etxarri Aranatz, eta sartzearen Lakuntza eta Bakaiku, sakandarren %26,31.

## Dantzalekurako ur sarea erabat berritu du Altsasuko Udalak

Herrigunetik Dantzalekura arteko ur hornidura sarea berritzeko lanak despeditu dira. Langileek San Pedro Bidea kaleko borobiletik Dantzalekuko kirolgunera arteko sarea berritu dute erabat. Baita Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutura eta Iñigo Aritza ikastolara ura eramaten duen sarearen adarra ere. Sarea oso hondatuta zegoen eta

ur ihes ugari zituen. Gainera, sarearen puntu batzuetara iristen zen ur emaria eta haren presioa ez ziren nahikoak Dantzalekuko igerilekuak betetzean. Lanek 144.063 euroko aurrekontua izan zuten.

Bestetik, Altsasuko Udalak Beheko Benta auzoan ur hornidura sareak duen ihesa konpondu behar du. Maiatzaren 13an hasiko ditu eta handik ezinen da Altsasura sartu, atera bai, ordea. Herrira San Joan edo Zelai kaletatik sartu beharko da.

# Toki erakundeek milioi erdi jasoko dute

Nafarroako Gobernuak emanen die, Toki Inbertsioen Planaren Toki Programazioa eta Erabileraren Askeko Programatik. Diru horrekin azpiegiturak eta zuzkidurak instalatzeko, hobetzeko eta berritzeko inbertsioak lagundu nahi ditu Foru Administrazioak

### SAKANA

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusi Jesus Maria Rodriguez Gomezek jakinarazi duenez, Nafarroako udal eta kontzejuen artean 10.116.360 milioi euro banatuko ditu Nafarroako Gobernuak. Toki Inbertsioen Planeko Erabileraren Askeko Programa arautzen duen Foru Legeari jarraituz egingen du hori. Dirulaguntza horren helburu nagusia da bermatzea nahitaezkoak diren udal zerbitzuak Foru Komunitate osoan ematen direla. Legean jasotzen denez, udal eta kontzeju bakoitzak diru-kopuru bat jasoko baitu, dagokiona biztanle kopurua eta biztanle guzteen sakabanaketa geografikoa kontuan hartuz eta urte bakoitzean funtsak duen zuzkiduraren arabera.

Sakanara aurten 498.590,88 euro iritsiko dira, Nafarroako Gobernuak banatuko duenaren %4,93; biztanleriaren %3,06 gara. Sakanako udal eta kontzejuek aurten jasoko duten diru kopurua joan zen urtean jasotakoa baino 49.728,56 euro eta %9,09 txikiagoa da, nahiz eta gobernuak banatutako dirua %1,16 handitu duen.



Hiriberri Arakilgo kontzeju etxea. ARTXIBOA

## Toki erakundeek Determinazio Libreko Programatik jasoko dutena

Udalerria	Kontzejuak	Biztanleak	Kopurua
Arakil		987	42.632,60
	Ekai	37	2.612,46
	Etxarren	164	5.282,26
	Etxeberri	64	3.180,06
	Egiarreta	89	3.705,61
	Errotz	62	3.138,01
	Izurdiaga	174	5.492,48
	Satrustegi	55	2.990,86
	Urritzola	18	2.213,04
Hiriberri Arakil		125	4.462,40
	Ihabar	127	4.504,44
	Zuhatzu	45	2.780,64
<b>Irurtzun</b>		<b>2.316</b>	<b>44.511,98</b>
<b>Irañeta</b>		<b>165</b>	<b>19.468,94</b>
<b>Uharte Arakil</b>		<b>806</b>	<b>39.318,28</b>
<b>Arruazu</b>		<b>119</b>	<b>19.468,94</b>
<b>Lakuntza</b>		<b>1.297</b>	<b>38.937,89</b>
<b>Arbizu</b>		<b>1.126</b>	<b>38.937,89</b>
<b>Ergoiena</b>		<b>380</b>	<b>17.632,24</b>
	Lizarraga	175	6.998,77
	Dorrao	119	5.699,55
	Unanu	86	4.933,94
<b>Etxarri Aranatz</b>		<b>2.521</b>	<b>48.566,79</b>
	Lizarragabengoa	32	1.800,00
<b>Bakaiku</b>		<b>343</b>	<b>19.468,94</b>
<b>Iturmendi</b>		<b>418</b>	<b>19.468,94</b>
<b>Urdiain</b>		<b>638</b>	<b>33.363,79</b>
<b>Altsasu</b>		<b>7.590</b>	<b>58.406,83</b>
<b>Olatzagutia</b>		<b>1.483</b>	<b>38.937,89</b>
<b>Ziordia</b>		<b>352</b>	<b>19.468,94</b>
<b>Sakana</b>		<b>20.541</b>	<b>498.590,88</b>



Cristina Matias Tapia, Lanbide Heziketako ikaslea eta Unai Aldaz Oraa, Aldor Internet enpresako arduraduna.

# "Ikasketa baliagarria da industria mota askotan"

**CRISTINA MATIAS TAPIA** MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK-EKO IKASLEA Ikasketak eta praktikak despeditzeaz dituela, bere esperientziaren berri kontatu digu Lanbide Heziketako ikasleak

## Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Sakana Lanbide Heziketako mikroinformatikasistemak eta sareak erdi mailako zikloko ikasleak ordenagailuen tripetan ibiltzen abila dira. Euskarazko ikasketak dira, 2021-2022 ikasturtean ezarriak, baina nahikoa matrikula ez badu, kenduko dituztenak.

## Zer ikasten duzue?

Mikroinformatika eta Sareak ikastaroan, mikro mailako sistema informatikoen funtzionamenduari eta komunikazio sareen diseinuari, inplementazioari eta kudeaketari buruzko oinarriko ezagutzak lortzen ditugu. **Zer esan nahi du "sareak" hori?**

Sare informatikoei dagokie, hau da, komunikazioa eta datu-trukea ahalbidetzen duten gailu eta sistemen arteko konexioari.

**Enpresetan praktikak egiten dituzue?** Bai, ikasturtean sektoreko enpresetan praktikak egiteko aukera dugu. Esperientzia praktikoko horri esker, ikasitakoa lan

## "Oso trebatuta eta gogotsu iristen dira"

**UNAI ALDAZ ORAA** ALDOR INTERNETEKO ARDURADUNA

**Zergatik hartu dituzue ikasleak praktiketan?** Asko laguntzen gaituztelako. **Zenbat denbora egon dira zuekin?**

500 ordu, gutxi gorabehera 3 hilabete.

### Zertan?

Web orrialdeen programazio lanak, sare sozialen kudeaketa eta internet-ekin erlazionatutako hainbat lan egiten.

### Trebatuta iristen dira?

Bai oso, eta, gainera, gogo askorekin. Oso pozik gaude beraiekin.

### Errepikatzekeo asmorik?

Bai, ez da lehenengo aldia eta ez da azkena izango.

ingurune erreal batean aplika dezakegu.

### Zein enpresa mota dira?

Informatikarekin zerikusia duen edozein enpresa izan daiteke; nire kasuan, web orriak diseinatzen dituen enpresa bat aukeratu nuen.

### Zer moduzko esperientzia izan da?

Esperientzia nahiko eroso izan da. Praktiketan, benetako proiektuetan laguntzeko eta arazo teknikoei aurre egiteko aukera izan dugu, eta horri esker hazi gara, bai profesionalki, bai pertsonalki.

### Nori gomendatuko zenioke ikasketak horiek egitea?

Ikasketa hauek gomendatuko nizkioke bai informatikaren alorrean sartu nahi duen orori, esperientzia badute edo hutsetik hasita badaude, bai ordenagailua eta teknologiaren edozein arlo

erabiltzen duen beste edonori ere. Ikastaroak oinarri sendoa ematen du teknologian, eta baliagarria da industria mota askotan.

### Ikasketak despedituta, zer?

Heziketa ziklo hau bukatu ondoren, nire hezkuntzarekin jarraitzeko asmoa dut, Marketin-eko goi maila bat eginez. Uste dut informatikako ezagutza teknikoak eta marketin-eko trebetasunak konbinatzeak aukera profesional berriak ireki diezazkidekeela, eta gero eta lehiakorragoa eta digitalizatuagoa den lan merkatu batean nabarmendu naiteke.

### Animatuko al zenuke jendea ziklo hau egitera?

Bai. Bai zikloa egin eta lan mundura irten nahi duenari, baita zikloa bukatu eta goi mailako beste ziklo bat egin nahi duenari.

## Odol emaleei aurpegia jarri diete

Nafarroako 204 emailek, tartean hamahiru sakandarrek, aitortza jaso dute

### SAKANA

Nafarroako Odolemailen Elkarteak, Adonak, ekitaldia egin zuen Iruñeko Baluartan apirilaren 28an. Ospakizun horren bidez joan zen urtean odola eman zuten guztien altruismoa eskertu zuten. Elkarteak presidente Anton Zubasti Madozek esan zuenez, "odol ematek bizitzaz hitz egiten duten historiak kontatzen dituzte. Zuek beti beste pertsonen onena bilatu duzue. Odol poltsa bakoitzaren ibilbidea jakiterik bagenu, istorioen katea ikaragarria izanen litzateke, eta, jakin gabe, zuekin harrema-

netan izan ziren pertsonen penak eta pozak elkarri lotuko lirateke".

Elkarteko buruak adierazi zuenez, haienak "positiboan ikus daitezkeen zenbaki gorriak dira. Adonak 67 urte daramatza jendarteari bizitzarekin konpromisoa eskatzen. Izandako erantzunaz oso harro gaude". Hala ere, Zubastik nabarmendu zuenez, "odola ematea ez da ohikoa; populazioaren %3ak besterik ez du egiten". Ekitaldian parte hartu zuen Fernando Dominguez Cunchillosek osasun kontseilariak esan zuenez, "odol ematea gure lurraren iden-



Nafarroako Odol emalen Elkarteak, Adonak, egindako ekitaldia. UTZITAKOIA

titate ezaugarri bihurtu duten milaka nafarren lekukoa hartzearekin ditut belaunaldi berriak, lurraren identitate ezaugarri horiek hala segi dezaten".

Sakanan odola emateko hurrengo hitzorduak honakoak

dira: Etxarri Aranazko, osasun etxean, maiatzaren 7a eta 16an, 17:00etatik 21:00etara eta Olatzagutian garagarriaren 17an, Sutegin, orduetegi berean. Odol emale egin nahi duenak handik pasa daiteke.

### Aitortzak

Adonak 150, 100 eta 50 emateak gaintzeagatik 204 emailek omenaldia egin zuten. Sakandarreri dagokienez, odola ehun alditan baino gehiagotan emateagatik aitortza jaso zuten Ignacio Otsagabia Maizek eta Nicolas Arbizu Gabirondo iturmendiarrak. 50 emateak gaintzeagatik aitortza jaso zuten Nerea Murillo Loidi irurtzundarrak, Jon Zabaleta Ulaiar etxarrendarrak, Juan Luis Salinas Burillo lakuntzarrak, Patxi Lizarraga Etxeberria dorrobarrak, Alfredo Alvaro Igoa, Francisco Javier Ansensio Igoa, Luis Goñi Igoa, Margari Goñi Jaka eta Juan Luis Maiza Begiristain etxarriarrek eta Francisco Jose Gomez Rovira eta Maria Jesus Porta San Roman altsasuarrek.





Josu Imaz Prim eta Susi Arteta Ballarin izan ziren hizlariak Altsasu Memoriak prestatutako saioan.

# Zaldiaren histori altsasuarra

Heroinari buruzkoa izanen da Altsasu Memoriaren bigarren liburuko kapitulu bat. Isildutako gai garrantzitsua gizarteratzeko hitzaldia antolatu zuen. Kontsumoaren ondorioz 34 altsasuar hil zirela jakinarazi zuen taldeak

## Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Altsasu Memoriak bigarren liburua, 1950etik eta 2000ra artekoa, 2025eko udaberrirako argitaratuko du. Besteak beste, intsumisioa edo drogak aipagai izanen dituzte. Hain zuzen, heroinari buruzko hitzaldia antolatu zuen taldeak eta Josu Imaz Primek esan zuenez, drogarena "isildua izan den gai delikatua da. Biktimek bakardadean bizi izan dute. Gertaera garrantzitsuak izan ziren eta haietaz naturaltasunez hitz egin behar da". Liburua prestatzeko biktimekin harremanetan jarri ziren eta batzuk esku zabalik hartu zituzten, besteek, berriz, ez zuten hitz egin nahi izan. Horregatik, prestatu zuen Altsasu Memoriak saioa. 80ko hamarkadaren erdialdean egindako inkestetan heroina kezkarik handieneko gaia zela.

## Hasierak

Susi Arteta Ballarin jubilatutako medikua izan zen beste hizlaria. Sei urtez Altsasun mediku eta larrialdi zerbitzuetan lan egindakoa. Jakinarazi zuenez, heroina Euskal Herrian 1976 aldean zabaltzen hasi zen. Amsterdam eta Tailandiara joateko aukera zuten goi mailako en artean zabaldu zen. Baina haiek ere beraien kontsumoa ordaindu behar zuten eta kontsumo zirkuluak zabaltzen joan ziren. "Orduko gizartea ez zegoen prest. Gainera, gizarte, ekonomia eta politika krisia zegoen". Testu-

**"MUNDUKO BESTE TOKITAN BEZALA DROGA GAZTERIA EZABATZEKO TRESNA IZAN ZEN"**

guru hartan heroina ihesbidea izan zen, eta diru iturria ikusi zuten beste batzuk. "Orduko hilabete bateko soldatarekin aste bateko heroina kontsumoa ordaintzen zen". Artetak gaineratu zuenez, "70eko hamarkada

akabera edo 80ko hamarkadaren hasieran inor ez zen drogadikzioaz arduratzen, arazoa alkoholismoa zen". 1984-1985erako Altsasun aurreneko hildakoak utzi zituen.

Jakinarazi zuenez, gaur egun ezagutzen dugun Lehen Arretako osasun arreta 80ko hamarkada hasieran abiarazi zuten. Hamarkada haren erdialderako heroina kontsumoa handia zen. Hildako asko izan ziren: "askotan injektatzean zainak erretzen zitzaizkien, infekzioak, B eta C hepatitisak, gaindosiak edo heroina mozteko erabilitako sustantziek sorrarazitako kontrako erreakzioak..."

## Antolaketa

Gizarteak erakundeei aurrea hartu zien. Hego Euskal Herriko gotzainek drogaren egoeraren larriaz gaztigatuz gutuna zabaldu zuten 1983an. Drogaren interes estaliak eta balio falta zeudela gaztigatu eta kritikak zabaldu zituen. Adikzioak birgizarteratzeko proiektuei dago kienez, Gizakia Helburu erakundea 1985ean sortu zela azaldu zuen Artetak. Nafarrak aldameneko probintzietako egoitzetara joaten zirela ohartuta, Gizakia Helburuk 1991n zabaldu zuen egoitza Nafarroan.

Artetak esan zuenez, "gizarteak arreta psikosozialeko moduluak sortu zituen. Aurrenak Bilbon, eta zabalduz joan ziren. Baina inork heroina ezagutzen ez zenez, trebatzera atzerrira joan behar izan zen". Birgizarteratzaren kontura beste erakunde batzuk dirutza egin zutela azaldu zuen, esaterako, El Patriarca.

Medikuak jakinarazi zuenez, kontsumitzaile kopurua 1985erako egonkortu zen. "Ospitalean askok bukatzen zuten eta ordu-

koak dira infekzio-gaitzen unitateak. Jendea ospitalera sartu, egonkortu, atera eta beste aukerarik ez zuten, atzera ere, kontsumitzen zuten. Ez ziren gaixo onak". Eta ordurako ia ezezaguna zen gaitz bat bazebilen: Hiesa. 1981ean hasi ziren gaitz berri hura ikusten, 1983an opatu zuten gaitza eta Giza Immunoeskasiaren Birusa (GIB) detektatzeko serologia proba 1985ekoa da. "Euskal Herrian Hiesaren foku anitz sortu ziren. Beste tokitan homosexualak jo zituen, hemen xiringak partekatzen zituztenak", azaldu zuen Artetak. Altsasun hildako gehien pilatu ziren urteak 1990 eta 1994 urteen artekoak izan ziren. Hala ere, badira adikzioaren ondorioak bizi dituztenak ere.

Artetak argi du garai hartan gauzak "gaizki" egin zirela, eta ez zirela heriotzak eragotzi. "Adikzioa zutenek droga utzi behar ez zuten, metadona, xiringak eta Hiesaren kontrako kitak banatu behar zitzaizkien". 80 hamarkada bukaera edo 90eko hasierarako egoera hobetu zela nabarmendu zuen. Hala ere, gaur egun heroina eta kokaina kontsumoak jarraitzen duela azaldu zuen. Izan ere, Europak gaia serio hartu zuenean, hegazkin bidez iristeari utzi eta itsasoz eta errepidez iristen hasi zen heroina. Beste batzuek ere diru iturria ikusi zuten eta heroina txuriaz aparte marroia ere sartzen hasi ziren. Azken hori, erretzeko egokiagoa bada ere, injektatu egiten zuten. Bestalde, Imazek droga kontsumoa sustatu zuen giroaren eta droga trafikorearen atzean zeuden interes ugarien azterketa egin zuen. Navajas txostena ere aipatu zuen.

**Kaixo**  
Kafetegia - Jantetxea

Menua,  
plater konbinatuak eta  
ogilartekook aukeran

García Ximenez 20-22  
948 469 124 Altsasu  
www.restaurantekaixo.com

Ongi pasa festetan!

**Hijos de Goikoetxea**

Tel. 948 467 317 - 998979279 - GILBERTO BUSTO 11 - ALTSASU

## HARA ZER DIEN

## Ber(re)noa

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON


Hitz bakar batez baino gehiagoz osatutako lexiko mailako unitateak ditugula lexia konposatuak gogoratuko dut hasteko eta gaurkoan, lehen biek ba-aurrizki edo morfema daramate, aurreko artikularen azkenak, Pasa den apirilaren 17an, Etxarri Aranazko Kultur Etxean, Juan Luis Larraza etxarriarrak **Berno**a izenburua duen eleberria aurkeztu zuen. Eleberriak, gure herriaren historiarekin dauka harreman zuzena eta lerro hauek, lehen-lehenik egilea zoriendu nahi dut eta jarraian zalarzarik gabe bere obrak izanen dituen irakurle ugariak eleberraren testuinguru geografikoa hobeki ezagutzeko datu eta iritzi batzuk emanen ditut.

Ez dakigu zehatz-mehatz noizkoa den Ber(re)noako galtzada edo, hobeki esanda, ez dakigu noiz izan zen sortua. Ez dakigu, era berean, zein den bere jatorriko izena, modu ezberdinetan ageri baitzaigu dokumentuetan aipaturik: *Berreñoa* gehienetan, baina baita izen bera sinkopaturik, *Berno*a, ere. *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza X* liburuan, *Berreñoa* jaso zuten Iturmendiko toponimo gisa, nahiz eta iturmendiarrek *Berno*a ahozkatzuten dutela adierazi.

Izenaren osagaiak ez, ez ditugu ezagutzen, baina berarekin zerikusia izan dezaket bi datu emanen ditut.

Lehen-lehenik gogoratuko dut XIII. mendean, Aranazko eremuan dokumentaturik (*Libro del rediezmo*, 1268) ageri diren hogeita bat (gaur egun zazpi baino ez dira eremu horretan) herri edo bizilekuen arteko baten izena dela *Berenarren*. Eta hogeita bat herri horiek zerrendan erakusten duten ordenaren arabera, *Berenarren*, Beheko Basoko eremuan egon zitekeen, *Lizarraga*(bengoa) eta *Sarri* bizilekuekin batera aipatuta, *Arthania* eta *Arozpide* inguruan direla. Eta bizileku honen izenaren osagaiak *ber(r)enoa* eta *barren* izan daitezkeela iruditzen zait. Ber(re)noako galtzadak, Etxarri Aranazko Beheko Basoko *Artasoron* mendebaldera egiten duen gunetik 250en bat metrora dago San Adrian basiliza eta hantxe, aztarnen arabera, bizilekuren bat egon da noizbait. Zergatik ez, orduan, oso erabilia, eta ezauna horregatik, zen galtzadak izena ematearena ondo-ondoko bizilekuari?

Eta, bigarrenik, Etxarri Aranazko etxe baten izena dugu *Bernonekoa*. 1893tik gutxienik ageri zaigu etxe honen izena, herria gurutzatzen duen kale nagusiaren bazterrean, udal-txearen ondo ondoan hegoalde. *Berno*a + *-ren* + *-eko* + *-a* ote bere osagaiak?



Plano honen eskubi aldean Ataungo eremua mugatzen duten 43 mugarren kokapena ageri da, toponimoen bidez adierazita eta nik horietako zortziren zenbakiak handitu eta jatorrikoen ondoan jarri ditut zenbait izenekin batera. 22.ean, Lizarrusti, ez dago Ataun aldera pasabiderik eta 28.ean, Ber(re)noa, aldiz bai. 22.aren mugara iritsi gabe errekatxo dago markaturik Agauntza ibaira doana; 28.ean bi marra paralelo abiatzen dira mugatik bertatik herriraino eta bere azpialdean Kalzadea dago idatzita. Bestalde, planoaren goiko eskubiko aldean ikus daiteke beste bide bat (Napar bidea) markaturik, Zalarrate (13. mugarria) eta Pilarzadegi (14.a) mugarren artean abiatuta Malkorburu (17) eta Aleko gaña (18) artean Goroskarasta (20) eta Aleko iturri (19) artera doana, Etxarri Aranazko eremuan sartuz.

Galtzada honi buruz hitz egiten denean, ikertzaile gehienek Erdi Arokoa dugula aipatzen dute eta bai, Erdi Arokoa behintzat badela baieztatu daiteke. Hala ere, frogaz zehatz batere gabe, niri neuri iruditzen zait erromatarren garaian ere erabilia izan zela Lizarraldeko ardoak eta gariak bereziki garraiatzeko Sakanara eta, Goierritik barna, Gipuzkoako kostaldera ere, Bordele Astorga galtzada nagusiaren hegoaldea eta iparraldea lotuz. Erromatarrek ez zuten soilik Arakil ibaieraren ibilguaren inguruan interesa erakutsi gureari dagokionez (Atondo, Zamartze, Durruma, Albeniz) eta Gipuzkoako lurretara ere iritsi ziren. Nekez lortuko zituzten, halako bigarren mailako galtzadei esker ez balitz, legioen sostengurako beharrezkoak ziren ardoak eta gariak barduloen lurraldeetan. Gogoratu, bestalde, XIX. mendearen bigarren erdian ireki zituztela Lizarrustiko eta Lizarragako egungo bidea, Goierritik eta Lizarralde lotzen dituen.

Galtzadaren garrantzia azpimarratzera dator Carasatorreren ondorengo aipamenak (1993, 120), zeinek jakinarazten digun 1745ean,

Lakuntzak, Arbizuk, Ergoienak, Etxarri Aranatzek, Bakaikuk eta Iturmendik erabaki zutela galtzada erabat konpontzea Bakaiku eta Iturmendi arteko Ibaiega toponimoaren eremuan (egun ez da ageri toponimia ofizialean) eta gastuak zamariak (mandoak eta zaldiak) zituzten artean ordainduko zituzten, herri bakoitzean zeukaten mando kopuruaren arabera.

Bestalde, toponimia ofizialean agertzeaz gain (NTMX, 62), Etxarri Aranazko udal artxiboan, esate baterako, Etxarri Aranatz eta Valmedianoko markesaren arteko 1572ko mugarriztean ageri da: "...a los tres mojones que distinguen y apartan los dichos términos de la Villa de Echarri y Valle de Burunda y dende por Arguinaiz al mojon conocido que esta en lo mas alto de Berrenoa."

Aipatutako *Arguinaiz* toponimoa, egun oraindik bizirik dago Bakaikuko eta Iturmendiko toponimian 1776 urtean dokumentatua, *Arginuz* Bakaikun eta *Argiñuz* Iturmendin.

Galtzadaren sendotasuna, bereziki, Andimendi-Urbasako eremua zeharkatzen duen Zalbidetako eremuan eta Etxarriko eta

Lizarragako Bargan ikusten da, bateko eta besteko *Aska* gainak profitatuz.

Etxarri Aranatz, bere aztarnak ikus daitezke, atzera berriz, Beheko Basoko sarreran bertan, Basopokalen, Epeleko bidea eta San Adriango bereizten diren tokian bertan dagoen haritz eder baten azpian. San Adriango bideetik aurrera egirik, kanpina atzean utzi eta biren bat kilometrora *Santateita* toponimoaren eremuan, berriz ere, *Iraigorriko* eta San Adriango bidegurutzan jarraitzen du. Hemen herriko zenbait lagunek garbitu, atondu eta agerian utzi dute galtzadako ehunen bat metro, *Urbijotzen duenzubiraino*. Hortik aurrera, *Artasoroko* eremuan, San Adriango basilizara doan bidea utzirik, mendebaldera egiten du, Bakaiku aldera, hango galtzadarekin batera Iturmendikoarekin bat egitera, *Berreñoa* edo *Berno*ko *gaina* eta Goierrirako pasabidea erdiesteraino.

Ataungo eremu osoaren ondorengo planoan, bertan adierazten duen moduan, 1740ko beste batek jaso da eta Arin Dorronsoro (1928) ataundarraren lanetik hartu dut.

## DUELA 25 URTE...



## Beleixe Irratia emititzen hasi zen

Bierrik elkartearen (GUAIXE FUNDAZIOA gaur egun) hiru urteko lanaren ondoren, **BELEIXE IRRATIA** emititzen hasi zen FM 107.3 dialean. Aitziber Etxaiz Soria eta Alfredo Alvaro Igoa ari ziren lanean. Irratia 12:00etatik 14:00etara emititzen hasi zen, astegunetan. Baina saioaren aurretik eta ondoren Euskalerrria Irratiaren saioen berremisioa egiten zuten. Sustatzailen asmoa zen pitteka arratsaldean edo gauean saioak eskaintzea. Horretarako, udazkenean irrati ikastaroa egin nahi zuten.



Erkuden Ruiz Barroso kazetaria, Iñaki Mundiñano Larraza zuzendaria eta Yolanda Mazkieran Zelaia irakaslea.UTZITAKOIA

# Bizikletaren erradioa handitzen

Instituan garatzen ari diren programaren eta joan den astean antolatutako Aste Berdearen helburua da ikasleak oinez edo bizikletaz joatera animatzea. Horretarako, ikastetxean ezinbesteko jotzen dute bidea egokitzea edo bidegorri bat egitea

## ALTSASU

Mugikortasun jasangarria sustatzea helburu duen *Mugituz!* programa dute Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuan. Haren baitan, Aste Berdea izan zuten joan zen astean. Liburuak, bizikleta konponketak eta *Altsasu Film Festibala* izan ziren egitarauan. Apirilaren 24an, **BELEIXE IRRATIAK** bi orduko zuzeneko emanaldia egin zuten ikastetxetik beretik. Ikasleak Erkuden Ruiz Barroso GUAIXEko kazetariak egindako elkarrizketen

lekuko izan ziren. Gainera, saioaren irudiak ikastetxeko Youtube bidezko telebistaren bitartez ikusteko aukera ere izan zen. Apirilaren 25ean bizikletak konpontzeko tailerra izan zuten eta astea *Altsasu Film Festibalak* despeditu zuen.

Biorduko zuzeneko emanaldian ikasleek eta entzuleek bizikletaz bidaiatu duten hiru txirringula zaleren bizipenak ezagutzeko aukera izan zuten: Jon Arretzek, Antton Zelaia eta Irati Arroñezek beraien ibileren berri eman

zuen ikasle eta entzuleei. Mugikortasun jasangarria sustatzen badute ere, hori eragozten duen traba bat begiz jota dute institutuan: bidea. Hura egokitzea edo bidegorri bat egitea eskatzen du ikastetxeko komunitateak. Iñaki Mundiñano Larraza zuzendariak azaldu duenez, "institutura mila lagun inguru etortzen gara, herrietatik autoz edo autobusez etortzen gara, baina parte handi bat oinez edo bizikletaz". Irakasleak azaldu duenez, "duela bi urtera arte Altsasuko

ikasle batzuk autobusez etortzen ziren, horretarako herrietako autobus batzuk erabiltzen genituen. Baina horrek herrietako ikasleei ordu erdi lehenago etortzea eta ordu erdi berandu itzultzea suposatzen zien. Autobusak aprobetxatzeagatik ordu bateko gainkarga zuten herrietako ikasleek". Hori ezinezkoa zela erabaki eta Altsasuko ikasleendako autobus zerbitzu hori kendu zuten.

Mundiñanok azaldu duenez, "juxtu orduan sortu zen arazoa: oinez edo gurasoen autoan etorri beharra. Ondorioz, auto gehiago etortzen dira. Gehitu autobusak, oinezkoak eta bizikletan joaten direnak, gehi bidea eta espaloiak estuak direla". Sarrera eta irteera orduetan ibilgailu ugari piltzen dira. Ikastola aldamenen dago eta trafikoa are handiagoa da ordu jakin batzuetan. Ibilgailu gutxiago joan beharko lukeela nabarmendu du. Institutura egunero bizikletan joaten den irakasletako bat da Yolanda Mazkieran. Altsasun bizi denez, berarendako "altxor bat" da lanera bizikletan joan ahal izatea.

## Arriskua

Institutu arteko bidea estua da eta ez dago bi noranzkoetan joaterik. Beraz, instituturako bidea ere arriskutsua da bizikletan joaten direnendako. Gaztigatu dutenez: bidea eta espaloia estuak dira, zuhaitzetako adarrek argitasuna kentzen dute, bidea tarte batzuetan zabaldu behar da eta dauden zuloak konpondu. Mazkieranek azaldu duenez, ikasturte honetan "puntako orduak saihesten saiatzen naiz. Zorionez moldatu naiteke. Baina duela urte batzuk ezin nuen egin, eta arriskutsua da". Bidea estua denez, "bi autobus elkartzuz gero bizikleta batendako ez dago lekurik. Saihesteko, batzuetan espaloitik noa, baina han ere jendea dago". Askotan pentsatu izan du bizikleta bazter utzi eta oinez etortzea. Duela urte batzuk hala egin zuen.

Ikastetxerako bidean bidegorri bat egiteko eskatuz 1.251 sinadura bildu ziren 2018an. Gaiari duela bi urte heldu zioten berriro, Altsasuko ikasleak autobusez joateari uztean. Altsasuko Udalarekin harremanetan dago institutua eta hark zenbait lan egin dituela azaldu du Mundiñanok: bidea pixka bat txukundu, argitasunarena. Zuzendariak gogo-

## Zaletasunaz

Amia Gerrikagoitia Mank-eko ariketa fisikoko eta kirol teknikaria da. Berak azaldu duenez, bizikletarena "aspaldiko tradizioa da Sakanan, gustuko kirola izan da betidanik". Zalaletasunari inguruko bide onek lagundu diotela gaineratu du, "autobidea egin zenetik, bigarren mailakoa libreago dago". Aralar eta Burunda taldeak egiten duten lana ere nabarmendu du. Bera ere zalea da eta ibiltzen da: "bizi filosofia gisa hartu dut bizikletan ibiltzea".

Bizikletan ibiltzeko gutxieneko segurtasun irizpideak txikitatuz ezagutzea ezinbestekoa dela ziurtatu zuen. Esaterako: "errotan sartu aurretik ziurtatu atzetik heldu diren autoak oso ongi ikusten zaituztela: bide erdirantz joan eta ondoren sartu errotan. Halakoek laguntzen dute". Aldi berean, nabarmendu zuen komenigarria dela oinarriko ezagutzak izatea konponketa txikiak egiteko: zulaketak, katea ateratzea... Eta gomentatu zuen beti puzgailua eta tresnak eramatea. Gaztigatu duenez, "errepidean txirringulak asko ibiltzen gara eta denok elkar laguntzen dugu".

Azkenik, Gerrikagoitiak jakinarazi zuen Sakanako Bizikleta Egunak aurten 30 urte beteko dituela bizikletaren erabilera sustatzen. "Aurten Ziordia eta Uharte Arakil arteko bidea egiten du, Ergoienan barna pasa eta gero. Bost urtean behin edo egiten da horrela". Irailaren 22an izanen da.

ratu du ez dela ikastetxearen kontua bakarrik: "asteburuetan mugimendu handia dago Dantzalekun, udan jende asko joaten da igerilekuetara eta paseatzen jende pila bat ibiltzen da uneoro. Altsasuarrendako ere ez dago ongi prestatua", nabarmendu du. Udalak mugikortasunari buruzko azterketa eginen duela eta, horrek zer ekarriko duen ikusi nahi dute institutuan. Baina garbi du zuzendariak: "oinetz edo bizikletan etortzeko beste zerbaitekin behar da".

## Bizikleta bidez

Turismo teknikari Paki Urbitartek azaldu duenez, ibarreko bizikletendako bidea "Sakanan mugikortasun jasangarria bultzatzeko da, modu ziur batean herri batetik bestera bizikletan joan ahal izatea, ahal den neurrian errepidea saihestuz edo ahal den gutxiena erabiliz". Bestetik, "produktu zikloturista bat garatu nahi dugu, etortzen diren bisitariei ere bizikletan ibiltzeko aukera emateko".

Gaur egun sakandarrok bizikleta erabiltzeko egokitutako ibilbide falta da dagoen gabezia: "Horrek errepidea erabiltzera bulkatzen gaitu, eta autoekin elkar bizitzera". Bisitariei begira seinalezatutako gabezia bideak daude. Bestetik, hainbat profiletako bizikleta zaleak datoz baina haiendako zerbitzu gabezia dagoela nabarmendu du: bizikletak gordetzeko toki segurua, toki itxiak, bizikletak konpontzeko erremintak dituzten guneak, bizikletak garbitzekoak...

Urbitatek azaldu du eraikuntza proiektua idatzia dagoela, "finantza bideak ia lotuak ditugu, hitzarmena sinatzeko zain. Beharrezko baimenak tramitatzen gabiltza eta helburua litzateke 2024 akaberan edo 2025 hasieran obren lizitazioa egitea". Jakinarazi duenez, bizikleta bidea "Euroveloren irizpideekin egingen da. Biharko egunean, nahi izatekotan, Eurovelo sare horretan txertatu ahal genezake". Bitartean lotura hori lurtzunen egiten da.

# FESTAK



**ETXARRI ARANATZ** Fagotxabalen moztutako pagoa bizkar gainean Hartzabalera eraman ondoren, azkar ibili ziren etxarriarrak eta, prestaketa lanak eginda, berehala zutitu zuten 15 metroko enborra.



**BAKAIKU** Egurdia ikusita, bakaikuarrek maiatza zutitzeko lanak lehenbailehen despeditzea erabaki zuten. Hartzabalen 09:30erako baziren batzuk. Joan zen urteko maiatzari muturrean pinua jarri, zutitu eta 11:30erako etxerako bidean ziren.



**ITURMENDI** Ignacio Arbizuren gidaritzapean, 18:15ean hasi ziren 60 bat herritar 21 metro luzeko pagoa zutitzen. Hari muturrean 5 metroko lizarra jarria zioten. 50 minutu behar izan zituzten lanak despeditzeko.



UTZITAKOA

**ZIORDIA** Ziordiarrek, ohi denez, bi maiatza zutitu zituzten. Aurrena, 11:30ean, mendi gainean izan zen. Handik jaitsita, Errekakartea elkartean bazkaria izan zen. Egitaraua maiatza txikiaren zutitzearekin despeditu zen. Haurrak arduratu ziren hura zutitzeaz Txipudia parkean.

## Maiatzaren lehenan egitarau betea Iturmendin

Maiatza zutitzeaz aparte Iturmendin izan zen bestelakorik. Hasteko, goizean sailkapena egin ondoren, udaberriko zizen erakusketa izan zen auzogelan

18:30etik aurrera. Elkartasun bazkariaren bidez, otsailaren 6an atxilotutako herritarren auzibide gastuei aurre egiteko diru bilketa egin zen. Baita zozketarekin ere, zenbaki saritua 1.155a izan zen. Maiatza zutitu ondoren, Iturmendiko dantzariak frontoian dantzatu zuten.



UTZITAKOA

**ALTSASU****ALDE ZAHARREKO FESTAK****MAIATZAK 3 Ostirala**

20:00 Pintxopotea, gaztetxean.

AGAk antolatuta.

20:30 Aurkezpen sorpresa, gaztetxean.

AGAk antolatuta.

22:30 Kontzertuak: Deserrite eta Kontralde taldeak, gaztetxean.

AGAk antolatuta.



UTZITAKOA

**MAIATZAK 4 Larunbata**

11:30-13:30 Altsasuko Erraldoien konpartsa, Altsasuko eta Etxarriko gaiteroez lagunduta. Irteera, lortia; iristea, Foru plaza.

12:00 ELE festa: Mintzodromoa Idoia Granizo eta Ekain Alegre gai jartzaileekin; Kidam Magoa eta auzatea, Gure Etxearen aurrean (eguraldi txarrarekin Gure Etxean).

13:30 Apustua, plazan. Ondoren, aitortza makilaren esleitzea.

AGAk antolatuta.

15:00 Bazkaria, Zelandi frontoian. AGAk antolatuta.

17:00-19:00 Ludoteka plazara! Ginkana, tailerrak, jolasak eta abar, Foru plazan (eguraldi txarrarekin Ludotekan).

17:30 Eztanda Txaranga, herritik zehar.

AGAk antolatuta.

18:00-20:00 Josketa, lenteria eta ehoziri ikastaroetako lanan erakusketa, Gure Etxean.

19:30-21:30 Aiko taldearekin erromeria, Foru plazan.

21:30 Magrak, gaztetxean.

AGAk antolatuta.

22:00 DJ Boletus Rumberus, gaztetxean.

AGAk antolatuta.



ARTXIBOA

**MAIATZAK 5 Igandea****ARTISAU AZOKA**

09:00 Dianak Burunda txistulariekin.

10:30-14:30 Artisau Azoka eta taloak, Foru plazan (eguraldi

txarrarekin lortia zabalgunean).

10:45 Altsasuko Udaleko Udablantzaren irteera, Otadiako Kristo Deuna ermitara, Altsasuko Txistulariekin batera.

11:00-14:30 Josketa, lenteria eta ehoziri ikastaroetako lanan erakusketa, Gure Etxean.

12:00 Lagun Onak elkarteak eskainitako hamaiketakoa.

14:00 Bildots zozketa, Foru plazan.

19:00 Koloreak Haizean Haize Berriak Banda eta Milakoloreren kontzertua, Foru plazan (eguraldi txarrarekin lortia zabalgunean).

20:00-21:00 Josketa, lenteria eta ehoziri ikastaroetako lanan erakusketa, Gure Etxean.



ARTXIBOA

**HIRIBERRI ARAKIL****MAIATZAK 4 Larunbata**

08:00-08:30 Beriainera Ihabarko portutik igoko dira. Ermitara iritsita, gosalduko dute. Ondoren, herrira itzuliko dira.

15:00 Bazkaria, Txitera elkartean.

**ETXARRI ARANATZ****BELEIXE EGUNA****MAIATZAK 4 Larunbata**

Goizean, Beleixe irriatiaren emisio berezia.

Eguerdian, bazkaria, plazan. Ondoren, Joxek Farra.

**ARBIZU****UDABERRI AZOKA****MAIATZAK 5 Igandea**

10:00-14:00 Lore eta landareen azoka eta doako liburuaren mahaia.



ARTXIBOA

**OLAZTI****14. LORE ETA LANDAREEN AZOKA****MAIATZAK 5 Igandea**

11:30-14:30 Lore eta Landareen azoka, San Migel plazan. Eguraldi txarrarekin, frontoian.

11:30-14:00 Haurrendako

tailerrak: Lore ereinketa eta txapa tailerra, San Migel plazan. Eguraldi txarrarekin, frontoian.

18:00 Erkudengo Ama Abesbatzaren kontzertua, San Migel plazan. Eguraldi txarrarekin, kultur etxean.

**ITURMENDI****MIKEL DONEA****MAIATZAK 10 Ostirala**

19:30 Tiro al fletxa, gaztetxean. IGak antolatuta.

21:30 Bokatada, gaztetxean.

IGak antolatuta.

23:30 Kontzertuak: Bulkada, Mandroll eta talde sorpresa, gaztetxean.

IGak antolatuta.

03:30 Musikaldia, gaztetxean.

IGak antolatuta.



ARTXIBOA

**BAKAIKU** Estreinakoz bakaikuarrek udaberriko festak ospatu zituzten. Eta horren barruan herri apustua jokatu zuten.**BAKAIKU** Apustuaren ondoren, paella bazkaldu zuten gerturatu ziren bakaikuarrek.

# "Ederra litzateke beste bidelagunen bat opatzea"

OIER LAKUNTZA IRIGOIEN TXIRRINDULARI ITSUA

Hamaika urte daramatza tandem bizikletan ibiltzen, eta etxe inguruan ibiltzeko bidelagun bila dabil

**Alfredo Alvaro Igoa** URDIAIN

Badira kirol zaleak eta gorroto dutenak. Badira egin nahi eta ezin dutenak, laguna behar dutelako. Oierren kasua da hori.

**Kirolaria zara?**

Sekula ez naiz kirolari amorratua izan. Baina oraindik zerbait ikusten nuenean, Urdiaindik atera eta bizikletaz bueltaren bat ematera zaletu nintzen udan. Ikusmen galerak aurrera egin, eta begiek eskaintzen zizkidaten irudiak lausotuz joan ziren heinean, ordea, zaletasun hori alboratu behar izan nuen.

**Zer sentitu zenuen bizikleta uztean?**

Galera horrek ez zidan halako atsekabea eragin. Herriko lagunekin aisialdiaz eta gauaz gozatzeko aukera ederra neukan, eta horretaz baliatu nintzen. Bertsolaritza ere hor zegoen, eta tarteka-marteka izaten nituen saioek gozatzeko aukera eskaintzen zidaten.

**Ordutik ez zara gehiago ibili?**

Ez. Behin batean Lekunberriko lagun batek tandemean ibiltzea proposatu zidan. Lehen esan bezala, sekula ez nintzen txirrindulari amorratua izan, baina irudiak lausotuz joan ziren heinean, errepidean pedalei eraginez aurrera egiteko biziaren hori betiko galdu nuela uste nuen.

**Zer sentitu zenuen?**

Ederra izan zen. Tandem bat lortu eta Larraun, Ultzama eta Sakana aldean lehenengo etapak egin genituen.

**Norekin ibili ziren tandemean?**

Bi lagunekin, Mario eta Juan Marirekin. Beraiek dira tandemaren aurreko postuan eseri eta errepidearen bihurtzeko tentuz hartzen dituztenak. Biak goretse behar sentitzen naiz. Suhlitzaila lanak horretarako aukera ematen die, baina beraiek ere beti hor egon dira, nirekin pedalkada batzuk emateko prest.

**Zer moduzko harremana duzue?**

Oso polita. Behin Juan Mariri kezka adierazi nion: "zuetaz



Bidelaguna aurrean duela, Oier Lakuntza Irigoien atzean, bizikletan ibiltzen.

## "BIDELAGUNEN BAT TOPATUTA ERE, LEKUNBERRIKO EKIN ERE JARRAITU NAHIKO NUKE TARTEKA "

gehiagi aprobetxatzen ari naiz?"

Eta berak, lagunkoi eta ulerkor esan zuen: "lasai, gu bizikletaz nahi dugunean ibil gaitzeko, eta zuk beste norbaiten beharra daukazu. Gu, jadanik, tandemean ibiltzen ohituak gaude, eta berdin zaigu bizikletaz bakarrik ibili edo tandemean zurekin ibili". Eta horrela ibili gara. Aurtengoa, jadanik, hamaikagarren urtea da; udaz uda gabiltza elkarrekin pedalei eragin eta haizeak, inbidian, elkarri esandako hitzak gure belarrietatik desbideratzen ez dituenen, errepidean honetaz eta hartaz hizketan.

**Nondik abiatzen zarete?**

Beti Lekunberriatik. Etxeko norbaitek eraman behar izaten nau autoz bertara. Jakina, beraiendako ere hamaika urte ez dira alferrik pasa. Ni Lekunberriera eraman eta bertatik ekarri beharrek, beren aisialdia eta herrian

patxada ederrean egoteko aukera ere oztopatzen ditu. Horregatik, azken aldian maiz pentsatu dut ederra litzatekeela Urdiaindik gertu beste bidelagunen bat topatzea. Hala Urdiainen bertan tandem bat izango nuke, eta ez genuke aldiro Lekunberriera joan beharrik izango. Ez ditut inondik inora Juan Mari eta Mario alboratu nahi; esan berri dudana bezala, harreman ederra sortu dugu. Sakanan beste bidelagunen bat topatuta ere, tarteka-marteka bi lagun hauekin kilometroren batzuk egiten jarraitu nahi nuke.

**Beraz, tandemarako bidelagun sakandar bila zabilta?**

Hori da.

**Bizikletan ibiltzen jakiteaz aparte, beste zerbait behar da?**

Ez. Hori bai, tandemak gidatzeak trebetasuna eskatzen du, ez baita ohiko bizikleta batean ibiltzea bezain erraza. Baina Sakanan bizikletaz ibiltzeko ohitura handia dago, eta beraz, hautagai asko daudela esan daiteke. Norbaiti tandemean ibiltzeko gogoia sartuko balitz, jakinaraz diezadala, eta Lekunberriko lagunekin froga pare bat eginda, ziur tandemari elkarrekin neurria hartuko diogula.



Leze sarreran dagoen ontzia eta hildako txakurra. UTZITAKOIA

## Espeleologoek esplorazioak segitzen du Andremango lezean

Galeria berririk ez dute opatu, baina bai garapenak nondik segi dezakeen

**Alfredo Alvaro Igoa** OLATZAGUTIA

Aldoiar harrobiaren eskuin aldean, goian, dago Andremango lezea. Hara bost espeleologo barneratu ziren abenduan eta 90 metroko sakonerara iritsi ziren eta lurpean 750 metroko garapena egiteko aukera izan zuten. Etxeko lanekin atera ziren orduan eta haiek egiteko, atzera ere, lezera bueltatu ziren espeleologoak apirilaren 3an. Asmoa abenduan abiarazitako esplorazioari segida ematea izan zen.

Azaldu digutenez, barneratzerakoan "behar diren sokak berriz instalatu genituen eta lezearen barruan jarraitzeko geratzen diren aukerak baloratu genituen. Gainera, puntan dagoen pasabidea zabaltzen hasi ginen. Hori guztia egiteak zortzi ordu kosta zitzaigun gutxi gorabehera". Argitu dutenez, egindako esplorazioak galeria berriak opatzeko "aukera bakarra" utzi zien, aipatutako punta. "Haize korronea dagoenez, galeriak jarraitzen duela ulertzen dugu, baina pasabidea estuegia da guretako". Eta hura zabaltzeko lanak hasi zituzten.

**Hondakinak**

Abenduan bezala, oraingoan ere, Andremango lezera sartzerakoan espeleologoak botatako hondakinak opatu dituzte. Industriarako olio poteak eta zabor poltsak. Gainera, lezera sartzen den urak barruan dagoen garbigailu bat agerian utzi du; "dudarik gabe denbora luzea daramate", gazitatu dute espeleologoek. Hildako

hiru txakur ere opatu zituzten, "horiek egun hauetan 'agertu' dira". Horrelako hondakinak opatzean zer egiten duten galde-tuta, espeleologoek esan dutenez, "lur azalean dauden hondakinak gertatzen den bezala, udalei eta gobernu departamentuei egindako jakinarazpenek ez dute inolako eraginik sortzen". Bestela esanda, bertan segituko dute hondakinak.

Jakinarazi dutenez, koba eta lezeetan "ohikoa da plastikoak, beirak, hildako animaliak, mota askotako tresnak eta bestelakoak ikustea. Noizbehinka, espeleologo taldeek koba eta lezeen garbiketarako proposatzen dituzte. Hala ere, sarbidea eta hondakinak ateratzeko teknikak zailak dira", nabarmendu du. Lur azpia ikeritzen dutenek azpimarratu dutenez, "hondakinak ez dira desagertzen koba batean botatzen ditugunean. Bai, desegiten dira, eta lurpeko urek hondakinak mendiko iturburura eramaten du, bidean lur azpiko inguru guztia kutsatuz". Espeleologoek gogorarazi dutenez, "askotan, ur hori guk geuk, herriarrok, erabiltzen dugu edateko edota edozein erabilerarako". Andremango lezearen azpian Ornako iturburua dago.

Duela hamarkada batzuk esploratu zuten lezea. Orduko hartan 60 metroko sakonerara iritsi eta 150 metroko galeriak ezagutarazi zituzten. Orain Galdamesko Burnia, Oñatikoa Aloña Mendi eta Alloko Katteam espeleologia taldeko kideak ari dira ikeritzen.

## GIZON PREFERENTEA

**30. JARDUNALDIKO EMAITZAK**  
Altsasu - Lezkairu 3-1

**SAILKAPENA**  
PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Burlades B 60  
13 Altsasu 39

**HURRENGO JARDUNALDIA**

MAIATZAK 5. IGANDEA

18:00 Ilunberri - Altsasu (Lardin)

## Altsasu, puntuak biltzen segitzera

Beti Casedanoren kontra berdindu eta Lezkairuri irabazi ondoren, 4 puntu bildu ditu zakura Altsasuk. Ilunberriren kontra bide beretik jarraitu nahi dute altsasuarrek.

## Zaldua, puntu bat gehiago

Elomendiko Txapelketan, Zaldua Talleres Goñik bana berdindu zuen Modernillorekin. Arakildarrak bosgarren dira, eta Ageri seigarrena zuzena dute aurkari.

## GIZON ERREGIONALA

**28. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Etxarri Aranatz - Kirol Sport 5-0  
Lagun Artea - Ardoi 3-4

**SAILKAPENA**  
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Etxarri Aranatz 60  
2 San Jorge 56  
8 Lagun Artea 42

**HURRENGO JARDUNALDIA**

MAIATZAK 4. LARUNBATA

16:00 Beti Kozkor B - Etxarri (Lekunberri)

18:00 Arga Ibaia - Lagun A. (Sanduzelai)

## Etxarri Aranatz, sendotutako liderra

Arroxapea eta Kirol Sporten kontra errezitaldia emanez, lider jarraitzen du Etxarrik, eta hala jarraitu nahi du.

## Lagun Artea, hirugarrenaren kontra

Mutilvera C-ri irabazi, baina Ardoiren kontra galdu zuen Lagunek. Arga Ibaiairen kontra sentsazio onak berreskuratu nahi ditu.

## PILOTA Ezkurdia, Buruz Burukoan mirariaren bila

Buruz Buruko A mailan finalerdietara sailkatzeko miraria behar du Ezkurdiak: hasteko, larunbatean, Labriten, Zabalak Artolaren kontra galtzea; eta bigarren, igandean Elordiren kontrako Bilbon jokatu duen partidaren Berriatuako aurrelaria 2 tantotan edo gutxiagoan uztea. Bestalde, B multzoan Zabaletak ez du arrera egiteko aukerarik.



Maitane Vilariño, Jagoba Arrasate, Iñaki Berastegi, Yolanda Martil eta Igor Martinez.

## Erreferente euskaldunak izatearen garrantzia

BELEIXE IRRATIAREN 25. urteurrenaren harira antolatutako 'Euskara Kirolean' mahai inguruan Jagoba Arrasatek, Maitane Vilariñok, Yolanda Martilek eta Igor Martinezek euskararen inguruko hausnarketa interesgarria egin zuten

## Maider Betelu Ganboa ALTSASU

BELEIXE IRRATIAREN 25. urteurrenaren ekitaldien artean, Iortia Kultur Guneak 'Euskara Kirolean' mahai ingurua hartu zuen, BELEIXE IRRATIAREN eta Sakanako Mankomunitateak antolatuta.

Euskadi Irratiko kirol kazetari Iñaki Berastegi Goikoetxea urdiandarrak gidatu zuen saioa. Jagoba Arrasate Osasunako entrenatzailea, Maitane Vilariño Osasunako jokalarari olaztiarra, Yolanda Martil Xotako kapitain irurtzundarra eta Igor Martinez CBASK saskibaloitako taldeko entrenatzaile eta El Conquis saioko partaidea zituen alboan. Kirolaz baino, euskararen inguruan mintzatu ziren gehiago.

Euskarari dagokionez, norberaren errealitatea zein den galdegin zien Berastegik. Yolanda Martilek erantzun zuen berak A erduan ikasi zuela eta euskalduna dela, "baina urte askotan gaztelaz hitz egin dut. Xotan gehienak erdaldunak dira, eta entrenamenduetan gehienbat gaztelaz aritzen gara. Alaba jaio zenetik euskaraz hasi naiz, baina gaizki hitz egin eta hanka sartuko dudana beldurra izaten dut. Urduri jartzen naiz. Hala ere, nire lanean "egun on" esaten hasi naiz, horrela euskarazko elkarrizketak sortzen dira, eta alabaren irakaslearekin bilerak euskaraz egiten hasi naiz. Pauso-pauso" azaldu zuen.

Igor Martinezek CBASK saskibaloitako taldeko emakumezkoen kadeteen taldea entrenatzen du. Klubean euskararen aldeko alde sakona eman dela azaldu zuen. "Orain arteko entrenatzaile eta koordinatzaile bateranoek ez zekiten euskaraz, baina orain Iosu Mendiola da koordinatzaile berria, euskalduna, eta entrenatzaile guztiak ere euskaldunak dira. Euskararen aldeko apustua egin da". Euskaraz aritzeko ohitura hartzea, hori da koska nagusia. "Gure taldean euskaraz aritzeko konpromisoa hartu dugu, baina kostatzen da. Errieta egin behar diedanean gaztelera ateratzen zaidala ere aitortu behar dut" esan zuen, barre artean.

Jagoba Arrasatek euskararen alde duen jarrera nabarmena da. Osasunara sartu zenean, eta klubarekin adostuta, hizkuntzen inguruko estatutuak jarri zituzten indarrean, euskarari bere tokia eskainiz. Prentsaurrekoak ere euskaraz ematen ditu. Taldean ere gerok eta euskaldun gehiago dago. "Garrantzitsua da Aitor Fernandezi, Iker Muñoz, Unai Garciari, Aimar Orozi, Jon Moncayolari... euskaraz entzutea. Gazteek erreferente euskaldunak behar dituzte. Bestalde, euskaraz hitz egitea, pauso hori ematea, hori da garrantzitsuena, nahiz eta akatsak egin. Lotsa kentzea" nabarmendu zuen, teknikarien artean euskaraz hitz egiten dutela gaineratuz. "Giroa sortu dugu. Budimirrek egun on eta agur esaten du". Halaber, futbolaren terminologia eta hiztegia "oso erdalduna" dela aitortu zuen, hobetu beharrekoa.

Maitane Vilariñok aipatu zuenez, Osasunako taldekide gehienak erdaldunak dira, asko estatuko beste herrietakoak. "Entrenamenduak gaztelaz izaten dira. Badaude euskaldun batzuk, Valero, esaterako, eta berarekin euskaraz aritzen naiz. Lortu duguna da "lasai", eta halako hitzak taldekideei irakastea. Bestalde, euskarazko klaseak jasotzeko eskubidea dugu, hala dago jasoa estatutuetan, baina agian gehiago tematu beharko litzateke horretan".

Zenbait ondoriotara heldu ziren: euskararekiko jarrera proaktiboa izatea ezinbestekoa dela, kirola euskara bulkatzeko tresna garrantzitsua izan daitekeela, eta, jakina, kirolean euskara sustatzeko lan asko egin beharra dagoela. Lehena, euskaraz aritzeko lotsa galtzea. Eta, jakina, El Conquis ere hizpide izan zen.

## Iker Iturrioz eta Ekain Galarza, Nafarroako taldekako podiumean

XAKEA NKJ-etako Nafarroako Taldekako Txapelketan bigarren eta hirugarren izan ziren, Oberenarekin

Igandean, apirilak 28, Nafarroako Kirol Jokoetako (NKJ) Nafarroako Taldekako Xake Txapelketak jokatu ziren Iruñeko Oberena klubeko egoitzan. 12, 14, 16 eta 18 urtez azpiko txapelketak izan ziren erabaki zirenak.

## Sakandarrak, ederki

14 urtez azpiko mailan Iker Iturrioz altsasuarrak Gael Morrarekin, Diego Molinerorekin, Marcos Berlangarekin, Keira Arregirekin eta Pablo Abregorekin osatu zuen Oberenako

taldea. Txapelketa ona egin zuten guztiak, eta sailkapen orokorrean bigarren sailkatu ziren (6 puntu), Mikel Gurea txapeldunaren (8 puntu) atzetik. Iturriozek aitortu duenez, "nire bigarren aldiko, nahikoa ongi".

18 urtez azpiko txapelketan Ekain Galarza urdiandarrak Ines Abrisketa, Guillermo Duran eta Javier Riezu izan zituen taldekide Oberenan. Hirugarren sailkatu ziren (4 puntu), Orvinairen (10 puntu) eta Mikel Gurearen (8 puntu) atzetik.



Iker Iturrioz, bigarren sariarekin. UTZITAKOA



Iker Gomez, Lazkaon. UTZITAKOA

## TXIRRINDULARITZA Iker Gomez: bi lasterketa, bi garaipen

Aste borobila bizi du Iker Gomez Lopez de Goikoetxea altsasuarrak (Quesos Albeniz). Apirilaren 27an eurpean jokatuak juniorren LXVIII. Lazkaomendiko Proban gailendu zen, Gaintzan erasojo eta helmugara bakarrik iritsita. Mendiko saria ere irabazi zuen. Selektioarekin Italian L'Eroican lehiatuzetik zetorren, "eta horrek erritmo eta indar handia eman dit" azaldu zuen.

Pedal kolpe bikaina duela agerikoa da, maiatzaren lehenean Lacturale Junior Trofeoan ere sekulako erakustaldia eman baitzuen, denboraldiko laugarren garaipena lortuz (2:20:29). Iker Villar bigarrenari (Robert Innova) 1:21 atera zion, eta mendiko saria irabazi zuen. Borobila.

# Argandatik zapore ezin hobearekin itzuli dira

**IRRIKAKETA** Xixonen eta Argandan jokatuak estatu mailako 15 urtez azpiko Liga Nazionalen laugarren sailkatu da Sakana Patin, espero baino hobe. Txapelketak "bizia eman diela" eta "sekulako esperientzia" izan dela nabarmendu dute

## Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Estatu mailako 15 urtez azpiko Liga Nazionalen lehiatu dira aurten Sakana Patin taldeko kimuen eta haurren maila sei gazte, eta balorazioa ezin hobea da. "Txapelketan kimuen eta haurren maila sei neska eskatzen zituzten, eta guretako txapelketa egokia zen. Taldea jokatu da, hau da, irristalarietako taldearendako batzen dituzte puntuak. Hiru mailatan jokatu denez eta gu berriak ginenez, hirugarren mailan hasi ginen, eta oso gustura", hala azaldu zuen Sakana Patineko entrenatzaile Oscar Zamarron Carravillak martxoaren 23an Olaztin jokatuak Nafarroako Abiadura Irriaketa Indoor Txapelketako laugarren jardunaldian. Hirugarren maila horretan Estatuko hainbat txokotako taldeak lehiatu dira, hamahiru talde.

11 eta 14 urte bitarteko sei irristalari hartu dute parte aipatu txapelketan: Aiora Resano do-



Sakana Patinekoak Argandan, lortutako laugarren postuarekin pozik. SAKANA PATIN

rrobarrak, Amalur Apaolaza lakuntzarrak, Leire Rabat arbi-zuarrak eta Elaia Agirre, Nahia Zamarron eta Eneritz Fresneda altsasuarrak. Txapelketak lau jardunaldi zituen. Lehendabiziko biak martxoaren 9an eta 10ean

jokatu ziren, Xixonen, eta azkeneko biak apirilaren 20an eta 21ean, Argandan (Madril).

## Xixonen eta Argandan ederki

Xixongo bi jardunaldietan 500 m, 4.000 m puntuazioa eta 3.000

m taldekako erreleboetan lehiatu ziren, eta Sakana Patin bosgarren sailkatu zen. "Hori guretako askoz ere handiagokoak zirelako". Argandan bosgarren postua eutsiz gero "asko" egingo zutela uste zuten sakandarrek, baina aurreikuspenak hobetu zituzten.

Argandan 300 m sprintean, 1.000 m linean, 3.000 m puntuazioan eta 3.000 m taldekako erreleboetan lehiatu ziren. Erreleboetako proban emaitzarik onena lortu zuten sakandarrek: Sakana Patin bigarren sailkatu zen, helmugarako bi itzuliretan faltan lehenak izan ondoren. Lan guztien batuketan eginda, emaitza ederra lortu dute, Estatu Mailako 15 urtez azpiko Liga Nazionalen laugarren sailkatu baita Sakana Patin, hirugarrenetatik 11 puntu eskasera.

Sakana Patinekoak "oso kontenturik" daude. "Liga Nazionalak zapore ona utzi digu, eta espero dugu datorren urtean atzera ere bertan lehiatzeko aukera izatea" nabarmendu du Zamarronek. Gainera, beraiendako "esperientzia zoragarria" izan da. "Xixonera eta Argandara Iruñeko Lagunak klubekoekin joan ginen, eta asteburu osoa eurekin egon ziren kontzentratuta. Txapelketak bizia eman die, izugarri disfrutatu dute, eta, gainera, espero baino emaitza hobea lortu dute". Hemendik aurrera bestelako probak dituzte zain.



ALDABIDE

## Zubiria-Gorraiz, txapeldunorde

**PILOTA** Igandean Udaberri txapelketako finalak jokatu ziren Iruritan eta Elizondon. Kadete B mailan, Asier Zubiria (Aldabide) eta Pello Gorraiz (Irurtzun) finalerako sailkatu ziren, Sergio Esain eta Unai Santesteban (Atarrabia) pilotariekin batera. Final estuan, 18-14 galdu zuten sakandarrek. Martija eta Gaskue pilotarietako banatu zituzten sariak.



ALDABIDE

## Txapeldun sakandar gehiago

**PILOTA** Asteburuan Nafarroako Kirol Jokoetako Binakako bigarren faseko finalak jokatu ziren Iruritan eta Lodosan. Iruritan, benjamin mailako lehen mailan Atarrabiako Otamendiri eta Zabaletari 0-2 irabazi zieten Aldabideko Sanchezek eta Mauduitek (3-10 eta

9-10). Lodosan, benjamin hirugarren mailan Cobosek eta Moralek (Irurtzun) Perez-Rivas (Lagunak) mendean hartu zituzten (5-10 eta 6-10), eta kimuen hirugarren mailan Irurtzongo bi taldeen arteko finalean Lanz-Erbitik 18-14 irabazi zieten Ongay-Lizasori.





Txuma Morcillok eta Elena Sagaseta de Ilurdozek Altsasuko Mendigoizaleen egoitzan aurkeztu zuten XV. Hiru Mendizerrak.

# Hiru Mendizerrak, Himalaiari begira

**MENDIA** Maiatzaren 11n XV. Hiru Mendizerrak Urbasa, Altzania eta Aralar martxak batuko ditu. Aurten IV. Ochoa de Olza Memoriala izango da, eta SOS Himalaya Fundazioa lagunduko du. Izena ematea maiatzaren 4ra arte dago zabalik

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU Altsasuko Mendigoizaleak taldeko Txuma Morcillo Larrazak eta Iñaki Ochoa de Olza-SOS Himalaya fundazioko koordinatzaile Elena Sagaseta de Ilurdozek aurkeztu zuten maiatzaren 11n Burunda frontoitik abiatuko den XV. Hiru Mendizerrak mendi martxa. Hamabosgarren ur-

teurrena borobiltzeko, aurten izena luzeagoa du Altsasuko mendi martxak, aldi berean IV. Ochoa de Olza Memoriala izango baita. "Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak urtero mendi martxa batek Iñakiren izena izatea proposatu zigun, Iñaki Nafarroako alpinismoaren erakusle handienetakoa zenez

belaunaldi berriek bere ezagutu dezaten eta, aldi berean, SOS Himalaya Fundazioa laguntzeko, Iñakik gehien maite zuena egiten: mendira joaten, eta jendearekin egoten" azaldu zuen Sagaseta de Ilurdozek. Aurten gustu handiz onartu du erronka Altsasuko Mendigoizaleak taldeak. "Izena emate bakoitzetik 2 euro SOS

Himalayara bideratuko ditugu, fundazioak Himalayan sustatzen dituen proiektuak laguntzera" gaineratu zuen Morcillok.

## Hiru ibilbide

Hiru Mendizerrak mendi martxa Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien Txapelketan eta Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuituan jasoa dago. Hiru ibilaldi ditu: Luzea (48 km, 2.330 m desnibela), Ertaina (37 km, 1.634 m desnibela) eta Laburra (26 km, 1.200 m desnibela). Maiatzaren 11n, 7:00etan abiatuko dira mendizale guztiak.

## Santa Marinaraino

Mendizaleek Urdiainera joko dute, Portuazpitik Urbasa-Andiara igotzeko, baina aurten ibilbidean berrikuntza handia dago. Bertatik Bargainera (1.153 m) jo beharrean, Iturmendi aldera egingo dute mendizaleek, Santa Marinaraino (1.064 m). "Urbasa-Andia parke naturala da, eta geroz eta zailtasun gehiago daude zenbait gune babestuetatik pasatzeko. Beraz, Bargagain eta beste puntu batzuk ekiditea erabaki dugu" azaldu zuen Morcillok. Santa Marinaraino hornidura gunea egongo da, eta buelta hartuta, Urbasako gailurreriatik Ziordiarantz joko dute, Gainsolera (1.064 m) heldu, eta Ziordiko hornidura gunera jaisteko. Ibilaldi Motza aukeratzen dutenek partzelarietatik, Cementos atzealdetik Altsasura joko dute. Gai-

nontzekoek, aldiz, Kipular (1.059 m) igoko dute, Orobeko harrobetik jaitsi eta Sorozarretako hornidura gunera heltzeko. Ibilbide Ertainekoak Dorretxikitik bueltatzea emanda Altsasura iritsiko dira. Aldiz, Ibilaldi Luzekoek Balankaleku (983 m) eta Intxusburu (946 m) igoko dituzte, eta Urdiango igerilekuetako hornidura gunera jaitsiko dira, indarrak berreskuratu eta Sarabetik, San Pedrotik eta Basoitxitik Altsasuko Burunda frontoiko helmugara heltzeko.

## Izena emateko azken eguna

Izena ematea zabalik dago, maiatzaren 4ra arte, Zirkuitua web-gunean. Momentuz 100 mendizale baino gehiagok eman dute izena. Iaz 231 mendizalek parte hartu zuten. Antolatzaileek mendizaleak animatu dituzte, "paisaia ikusgarrietan barna egun ederra pasatzera, eta SOS Himalaya Fundazioa laguntzera". Guztiek kamiseta jasoko dute oroigarri. Martxaren egunean 30 boluntario ariko dira lanean, eta antolakuntzak "eskerrik beroenak" eman nahi dizkie. Halaber, mendizaleei norberak bere edalontzia ekartzea eskatu diete.

**"IZENA EMATE BAKOITZEKO 2 EURO SOS HIMALAYA FUNDAZIORA DOAZ" TXUMA MORCILLO**

## "Makaluko eskola bat berreraikitzen ari gara"

ELENA SAGASETA DE ILURDOZ IÑAKI OCHOA DE OLZA-SOS HIMALAYA FUNDAZIOKO KOORDINATZAILEA

### Iaz Sakanako Ibilaldiak hartu zuen Ochoa de Olza Memoriala eta orduan Makalun ospitale bat jasotzera bideratu zenuten jasotakoa?

Bai, ospitalea dagoeneko martxan da. Medikua dugu, otsailean hasi zen lanean, eta dagoeneko lauzpabost erditzetan lagundu du, bestelako artatze lanekin batera. Topera ari dira, ilusioz, eta oso pozik gaude. Orain alkoholismoari lotutako programa bat jarri nahi dugu martxan ospitaletik.

### Alkoholismoa arazo larria al da Himalaian?

Makalu gunean behintzat, bai. Makalun oso isolatuta daude. Ez du zerikusirik Annapurna, Katmandu edo bestelako haranekin. Mendizaletasunak diru asko



mugitzen du azken horietan, baina Makalura ez da iristen. Baratzea landu eta biziraun, hori da euren bizitza. Millet izeneko landare bat, artatikariaren antzekoa dena, destilatzen hasi dira, eta bertako alkohola sortzen dute. Arazoa oso larria

bilakatzen ari da, neure begiekin ikusi dut. Alkoholismoak arazo asko dakartza, portaera okerrak eta tratu txarrak tartean, eta kasu hauetan emakumeak dira gehien sufritzen dutenak. Hiru alkoholikok jo dute ospitalera, eta eurekin programa bat abian jarri nahi dugu. Trebakuntza eskaini nahi diegu, zurgindegian eta bestelako lanetan, euren gaitasunerako irtenbide bat izan dezaten, eta bailaran euren ezagutzak isla izan dezaten: eskolan lagundu dezatela, bailarari bizitza eman, alkoholik gabe askoz hobe bizi daitekeela erakutsi...

### Aurten Altsasun eta bestelakoetan jasoko duzuen nora bideratuko duzue?

Makaluko eskola bat berreraikitzen. Eskola erortzen ari da. Nepalgo

Gobernuaren baimena lortu dugu eraikina bota eta berriro jasotzeko, eta horretan gaude. Aurrekontua 25.000 eurokoa da. Tuterako Udalak 12.500 euroko laguntza onartu du, Oñatiko Udalak 5.000 eurokoa, eta gainontzekoa lortzeko azken bultzada behar dugu. Ea Hiru Mendizerretan jende asko animatzen den.

### SOS Himalayaren ekimen guztiaren berri Altsasun emango duzu, gaur, ostirala, 19:00etan lortian eskainiko duzun hitzaldian.

Hasteko, *La voz de Iñaki* ikusentzunezkoa eskainiko dugu, Iñaki ezagutzeko. Iñakik bertakoa den Mingma sherparekin igo zuen Makalu. Lagun handiak ziren, eta Mingma da fundazioko presidentea. Fundazioak 381 bazkide ditu. Hitzaldian fundazioak aurrera daramatzen proiektu guztien berri emango dut, eta lortiarra hurbiltzera gonbidatzen zaituztet. Aurten 16 urte beteko dira Iñaki joan zenetik, eta bere ondarea lantzen jarraituko dugu.

## FVNA: '100 urte, 100 mendi'



Irurtzugo Iratxok Erga gainera jo zuen. UTZITAKOA

**Iratxo Ergara** Federacion Vasco Navarra de Alpinismok (FVNA) 100 urte betetzen ditu. Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak eta Euskadiko Mendi Federazioak igandean Euskal Herriko 100 mendi igotzeko erronka jarri zuen. Iratxokoek Ergara jo zuten.



Etxarri Aranazko Larrañetakoek Beriainen jarri zuten hitzordua. UTZITAKOA

**Larrañetakoak, Beriainera** Etxarri Aranazko Larrañeta klubetik Beriain gainera jo zuten FVNA-ren mendeurrena ospatzera. Iratxokoek bezala, mendeurrenako ospakizuneko banderarekin eta bestelakoekin atera zuten talde argazkia.



Altsasuko Mendigoizaleak Urbasan, Dulantzen, bildu ziren. UTZITAKOA

**Altsasuko Mendigoizaleak, Dulantzer**a Urbasan bildu ziren altsasuarrak, Dulantzen. Guztira, Euskal Herriko 115 klubek parte hartu zuten '100 urte 100 mendi' ekimenean. Maiatzaren 18an Elgetan bilduko dira mendizaleak, egun horretan sortu baitzen FVNA.



Geaxi Eizagirre, eskuinean, bere ahizpa biki Mainerrekin eta Laura Fernandez lagunarekin San Migelen, ekaitza ari zuela. UTZITAKOA

# "Ez nuen bukatzea espero, baina gorputzak ongi erantzun zuen"

## GEAXI EIZAGIRRE ETXARRI MENDIZALEA

**MENDIA** Geaxi Eizagirrek ez zuen uste bere lehenengo saiakeran Sakanako Ibilaldi Luzea egingo zuenik, baina hiru ekaitzei aurre eginez, 14 ordutan lortu zuen

**Maidere Betelu Ganboa** IRURTZUN Eguraldi iragarpena kontuan izanda, Iratxokoek ez zuten horrenbeste jende espero. Irteera hartu zuten 1084 mendizaleetatik Ibilbidea bukatu zuten 842 auzartetako bat da Geaxi Eizagirre. **Euria aurreikusten zen, baina horren eguraldi petrala, inondik inora.** Eguraldi oso txarra egin zuen. Bagenekien kaxkarrak izango zela, baina ez genuen halako denboralea espero. 6:00etan euri pixka bat ari zuen, baina ez zuen hotzik egiten, eta saiatuko gine-

la erabaki genuen nire ahizpa Mainerrekin, Laura Fernandez lagunarekin eta hirurok. Eguraldia gerora okertu zen. **Sakanako Ibilaldia berezia da? Egin beharreko erronka?** Hirurok beti pentsatu izan dugu Sakanako Ibilaldi Luzea gehiegizkoa dela, eta ibilaldi hori egiten duen jendea zoratuta dagoela (kar-kar). Aurretik lau alditan egin genuen Sakanako Ibilaldi Ertaina, eta aurten pausoa eman eta ibilaldi luzea egiten saiatuko ginela erabaki genuen.

Entrenatzen hasi ginen, ibilaldia zatika egiten, eta gure burua prestatuta ikusi genuen saiakera egiteko. Ez genuen bukatzea espero, baina behintzat saiatu nahi genuen. **Sakanako Ibilaldi Luzea (54 km, 3.388 m desnibel) ikaragarria da. Txurregi, Beriain, San Migel, Larrazpil eta Erga lotzea, hitz potoloak dira. Noiz zakartu zen eguraldia?** Txurregi igotzen ari ginela hai-zeak oso gogor jotzen zuen; bel-durtu eta guzti egin nintzen. Ia etzanda igo behar izan genuen,



Geaxi Eizagirre eta Laura Fernandez Madotzera iristen. DORIS V.



Madotzeko horniduran indarrak hartzen. DORIS V.



Geaxi Eizagirre eta Unai Ansorena, Irurtzungo plazara iristen. DORIS V.

eta, gainera, ekaitza hasi zen. Zer egiten dut hemen? Pasa zitzaidan burutik. Ahizpari eta lagunari galdetu nien ea ziur geunden, eta Txurregi pasata haizea geldituko zela, eta lasai egoteko erantzun zidaten. Txurregitik Ollorantz sartu ginenean eguraldi ona topatu genuen, eta tarte horretan ongi joan ginen.

#### Berriain zen hurrengo koska.

Berriaingo portura iritsi ginenean sekulako ekaitza sartu, eta kazkabarra hasi zen. Gertu tximistak eta guzti ikusi genituen. Ermita bertan genuen, 200 metrora, baina ekaitzarengatik berehala porturantz jaitea erabaki genuen. Gutxira, eguzkia ateratzen hasi, une gogor horiek ahaztu, eta beste animo batekin iritsi ginen Uharte Arakileren, 11:30ak aldera. Martxa uztea genuen buruan, baina eguzkia ikusita San Migelera irarritzea erabaki genuen. Gustura geunden, baina goiko zatian atzera ere ekaitza zeterrela jabetu ginen. Eta hala izan zen. Kazkabarrak aurpegian sekulako mina egiten zigun, eta nahiko gogorra izan zen, baina, hala ere, San Migelera iri ginen.

#### Gorputzak ongi eusten al zuen?

Egia esan, nire gorputza oso ongi zegoen, bikain erantzun zuen. Ni ere harrirituta nengo. Sakanako Ibilaldi Luzea ez genuen osotasun batean bezala hartu. Zatika hartu genuen, etapa ezberdinak balira bezala: Orain Txurregiraino goaz; etapa bat egin dugu. Gero Berriainera, beste etapa bat. Gero Uharte Arakil, beste bat; gero San Migel... Nik uste dut horrek motibatu gintuela. Toki batera iristen ginenean, ospatzen genuen,

gero beste etapa bat planteatzen genuen... pixkanaka egin genuen.

#### San Migelera, hortaz, pela-pela eginda iritsi zineten.

Lagun baten aitak arropa lehorra ekarri zigun, eta behin aldatuta, hobeki sentitu ginen. Hala ere, nire ahizpak martxa uztea erabaki zuen, ezin baitzuen gehiago. Laura eta biok zalantzan geunden, baina berriro eguzkia atera zela ikusita, Madotzeraino heltzea erabaki genuen. Oso gustura ibili ginen; tarte lasaia da, eta eguzkiak giroa goxatu zuen. Madotzera 14:15ak aldera iritsi ginen. Han esan ziguten Uharte Arakilen jende asko erretiratu zela, eta gu ikusita harrirituta geratu ziren. Laurak martxa uztea erabaki zuen. Une horretan Irurtzungo Unai Ansorena agertu zen, eta jarraitzeko asmoa zuela azaldu zuen. Ni ongi sentitzen nintzen, eta berarekin aurrera jarraitzea erabaki nuen, Behintzat Latasara iri.

#### Zer moduz joan zen tarte hori?

Madotzetik Larrazpil igotzen hasi ginela trumoiak entzun genituen eta ekaitza hasi zen, baina zorionez, gainontzekoekin alderatuta ekaitza nahiko suabea izan zen. Larrazpil igota, Goldaratzera jaitsi, eta han eguzkia atera zen berriz, eguraldi ederra. Sakana oso polita ikusten zen, ikusgarri. Latasara heltzen ari ginela,

**"TXURREGIN GORA HAIZEAK OSO GOGOR JOTZEN ZUEN; TARTE BATEAN, BELDURRA SENTITU NUEN"**

Sakanako Ibilaldi Luze guztia bukatuko genuela erabaki genuen Unai eta biok, Ergara igoko ginela. Latasan lagunak eta mutil laguna genituen zain, berak etxera joan nahi zuela uste baitzuen. "Hiru ekaitzek harrapatu gaituzte; ea laugarrenak Ergan harrapatzen gaituen" esan nion. "Laugarrena? Jarraituko al duzu?" galdetu zidan. Eta nik baietz erantzun nion, Sakanako Ibilaldi Luzea bukatu nahi zuela.

#### Hankak nola zenituzten?

Nahiko ongi. Ergan gora nahiko arin hasi ginen, baina lokatz asko zegoen, eta indar handia egin beharra zegoen. Hala ere, aurrera egitea lortu genuen. Uste dut

trantze horretan emozioak eta burugortasunak asko bulkatu zutela. Hamahiru ordu generamatzan oinez, eta azken ordu erdia genuen aurretik. Beraz, indarra atera genuen. Ergan nengoela ahizpari idatzi nion, esanez Iratxokoei esateko guztia bildu zezatela, 20:00etan despeditzen baitute lana. Baina esan zidan plazan zeudela gu itxaroten, elkarrekin ospatuko genuela. Horrek ere animoak eman zizkigun, eta ahal genuen moduan jaitsi, eta plazan zain genituen lagunak, txaloka eta txistuka. Sekulako besarkada eman nien ahizpari eta Laurari. Izan ere, beraiekin ospatu nahi nuen, beraiengatik egin bainuen Sakanako Ibilaldia. Iratxokoei zigilua jarri, kamiseta eta diploma eman eta opari poltsa eman ziguten, eta azkeneko garagardoa ere gurekin hartu zuten, ospatzeko.

**Sakanako Ibilaldi Luzea osatuta, poz handia sentituko zenuen, ezta?** Bai, poz handia. Izan ere, ez nuen mendi martxa osoa egitea espero. Niretako saiakera bat zen, baina ez nuen uste bukatuko nuenik. Nire gorputzak horren ongi erantzuteak ere ez nuen espero. Oso indartsu nengo.

#### Azkenak izan zineten?

Uste dut gure atzetik beste mendizale bat zegoela.

**"IRATXOKOEK SEKULAKO LANA EGIN ZUTEN, EKAITZETAN DENETARIKO LAGUNTZA ESKAINIZ"**

#### Handik goitik, nola ikusten da Sakanakana?

Hodeiak ez badaude, oso polita (kar-kar). Dena berde-berde dago, ikusgarria. Eta daukazu poza eta emozioarekin, askoz hobeki. **Iratxo taldekoek lan izugarria egin zuten. Ekaitzetako trantze horietan jendearen animoa eustea garrantzitsua izango zen.**

Nik uste dut okerren beraiek pasa zutela. Sekulako lana egin zuten. Mendizaleak babestu zituzten, ekaitzarekin sufritzen ari zirenei denetarioko laguntza eskainiz, ibilbidea Uharte Arakilen utzi zituztenak autoz Irurtzungera eramanez... denetatik. Sakanako Ibilaldia ongi atera zela esan daiteke, guztiz.

**Datuak esanguratsuak dira. 1.084 mendizalek hartu zuten irteera, eta 842 mendizalek lortu zuten Sakanako Ibilaldia bukatzea. Zegoen eguraldiarendako, ikaragarria.**

Zalantzarik gabe. Eguraldia kontuan hartuta, Jende askok osatu zuten bidea, eta guztia ongi atera zen. Iratxokoei pozik egoteko arrazoi asko dituzte. Ildo honetan, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet lagundu ninduten guztiei eta Iratxoko antolatzaileei.

**Datorren urtean berriro Sakanako Ibilaldi Luzea egitera animatuko zara?**

Erga igotzen ari nintzela ez nuela berriz egingo etorri zitzaidan burura, baina datorren urtean eguraldi ona iragartzen badute eta lagunak animatzen banaute, agian animatuko naiz. Guk 14 ordutan egin genuen, baina badago jendea 7-8 ordutan egiten duena. Horiek guztiz erotuta daude, hori bai.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 3

**IRURTZUN Antzerkia.**

Irurtzango Antzerki Taldearen *Un día de campo* antzezlaren emanaldia. Sarrerak agortuta. **19:00etan, kultur etxean.**

**LAKUNTZA Batzarra.**

Lakuntzako abuztuko festak antolatzeke festa batzorde gaztea. **19:00etan, udaletxean.**

**ALTSASU Hitzaldia.**

SOS Himalaya – Iñaki Ochoa de Olza fundazioko Elena Sagaseta de Ilurdozrekin solasaldia. Sarrerak: 3 euro. **19:00etan, Iortia kultur gunean.**

## LARUNBATA 4

**ALTSASU Txirindula irteera.**

Barranka Txirindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Ordozera 41 kilometroko ibilbidea. **08:30ean, Zumalakarregi plazan.**

**ARAKIL Irteera kulturala.**

Lizarrara kultur irteera, Arakilgo Udalak antolatuta.

10:30 Ibarretik abiatu.

11:30 Lizarrako Alde Zaharra bisita gidatua.

13:00 Karlismoaren museoa bisita libre.

14:00 Bazkaria.

16:30 Lizarratik ibilbide libre.

18:00 Itzuler.

**IRURTZUN Antzerkia.**

Irurtzango Antzerki Taldearen *Un día de campo* antzezlaren emanaldia. Sarrerak: 5 euro. **19:00etan, kultur etxean.**

## IGANDEA 5

**ALTSASU Txirindula irteera.**

Barranka Txirindularitza Taldearen irteera: Txurruko puntara 46 kilometroko ibilbidea. **08:30ean, Zumalakarregi plazan.**

**ETXARRI ARANATZ Jokoak.**

Abentura eta soka jokoak. **17:00etan, estalopean.**

**IRURTZUN Antzerkia.**

Irurtzango Antzerki Taldearen *Un día de campo* antzezlaren emanaldia. Sarrerak agortuta. **19:00etan, kultur etxean.**

## ZINEMA

**ALTSASU**

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

**Siempre nos quedará mañana** gaurkotasunezko filmaren emanaldia.Igandea 5: 19:30  
Astelehena 6: 19:00**The Palace** gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

Osteguna 9: 19:00

## ASTELEHENA 6

**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. **12:00etan, Zumalakarregi plazan.**

## OSTEGUNA 9

**ETXEBERRI Jardunaldia.**

Nutrizio osasuntsuaren inguruko jardunaldia: Anne Azkona Unanuaren hitzaldia: Elikadura arazo ohikoetan sakondu, plater osasuntsuak sortzen ikasi, etiketak



UTZITAKOIA

**IRURTZUN Raul Oloriz Espinal** artistaren erakusketa. **Maiatzaren 31era arte. Pikuxar tabernan.**



ARTXIBOIA

**ALTSASU Erraldoiak 80 urtez Altsasun** erakusketa: erraldioen konpartaren historiaren argazkiak, 2019an eta 2022 Aitor Callejak egindako figuren sortze prozesuaren argazkiak, lau erraldoiak eta abar.

**Maiatzaren 12ra arte. Iortia kultur gunean.**

## ZORION AGURRAK

**Eneka eta Arhane**

Gaur, maiatzaren 3an, Arhanek 7 urte betetzen ditu eta maiatzaren 12an Eneka urte bat. Zorionak eta muxu erraldoi pila familia guztiaren partez bikote!



irakurtzen ikasi, azukrea eta mitoak. Arakilgo Udalak antolatuta.

**19:00etan, elkartean**

## OSTIRALA 10

**URDIAIN Tailerra.**

Zoru pelbikoaren eta gorputz jarreraren hipopresibo tailerra, Sakanako Mankomunitateko Kirol zerbitzuak antolatuta. Izena ematea: 683 343 854 edo [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus). **17:00etatik 19:00etara, herriko etxean.**

**ALTSASU Gazte agenda.**

Gozagala Gozamez film laburren lehiaketaren sari banaketa gala. **18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

**ALTSASU Kontzertua.**

Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua, Nafarroako Kontzertu Sinfonikoen Zikloaren baitan. Programa: W.A. Mozart, G.P. Telemann eta L.V. Beethoven. Jose Luis Lopez Antonen zuzendaritzapean, Carolina Uriz biola jotzaile nafarraren parte hartzearekin. Sarrerak: 10 euro. **19:30ean, Iortia kultur gunean.**


**Er<sup>v</sup>iti** aluminio PVC

Akaborro industrialea 13 Irurtzun | 948 500 813 | [info@aluminioeserviti.es](mailto:info@aluminioeserviti.es)

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona eta prezio ezin hobea



## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

## ERRENTAN EMAN

**Ziordiko Udalak Etxaleku taberna emateko deialdia egin du:** Urte baterako kontratua eskaini du, hirutan luza daitekeena. Eskaintzak maiatzaren 14ra arte aurkez daitezke. Deialdiari buruzko informazioa udaletxean edo *labur.eus/BMzGT* web orrian dago.

## LEHIAKETAK

**Altsasuko festetako kartel lehiaketa 2024:** Festetako programan azala (helduen modalitateko irabazlearena) eta kontrazala (haurren modalitateko irabazlearena) aukeratu dira. Lanak ekainaren 17ko 14:00ak baino lehen lortia Kultur Gunean aurkeztu behar dira. Oinarriak eta informazio gehiago *www.altsasu.net* eta lortia kultur gunean.

**Irurtzungo jaietako kartel lehiaketa martxan:** Lanak aurkezteko epea maiatzaren 27an amaitzen da. Sariak egonen dira bai haurren kategorian ere. Oinarriak eta informazio gehiago *www.irurtzun.eus* web orrian, Irurtzungo udaletxean eta kultur etxean.

## OHARRAK

**Euskara ikastaro teknikoak egiteko dirulaguntzak:** Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, atzera ere, ikasketa ofizialak eta arautuak ez diren ikas-

taro, jardunaldi, biltzar, mintegi edo gisakoetan parte hartu duten herri-tarrei dirulaguntza emateko deialdia zabaldu du. Joan zen urteko azaroaren 1etik aurtengo abenduaren 31ra bitarteko ikastaroen matrikulak. Beti ere, edozein gairi buruz euskaraz egindakoak badira, aisialdiko monitore edo zuzendari izateko euskarazko ikastaroak barne. Horiez aparte, euskararen edota hizkuntza gutxituen normalizazioarekin edo soziolinguistikarekin zerikusia dutenak ere lagunduko ditu. Laguntzatik kanpo geldituko dira egoitza eta kilometraje gastuak. Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, aurtengo abenduaren 31rako bukatuta ez dauden ikastaroen kasuan, gutxienez %80ko asistentzia eskatuko die parte hartzaileei data horretarako. Deialdiari buruzko informazio guztia *www.sakana-mank.eus* webgunean.

**Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan izena emateko epea zabalik:** Zalantzak eta informazio gehiago 948 564 581 telefonon. Matrikula egiteko administrazio ordutegia 15:00etatik 20:00etara, online *www.altsasu.net* web orrian. Epea maiatzaren 22ean amaitzen da.

**Etxarri Aranatzko Udaletik etxerako egur loteak eskatzeko epea zabaldu dute:** Lote bakoitzak 44 euro balio du. Eskabide orria beteta eta ordainagiria aurkeztu

behar dira zozketan parte hartzeko. Epea maiatzaren 17an amaitzen da. Zozketaren eguna eta ordua bando bitartez jakinaraziko da.

**Altsasuko Udalean egur loteak eskatzeko epea zabaldu da:** Eskatera 948 012 012 telefonora deituz egin behar dira maiatzaren 10a baino lehen. Informazio gehiago *www.altsasu.net* web orrian edo udaletxean.

**Muga Zerok autobusa antolatu nahi du Herri Urratsera joateko:** Nafarroa gunean kontzertua eskainiko dute eta bertara joateko autobusa antolatzen ari dira. Irteera goizeko 08:00etan eta itzulera 19:00etan izango da. Ticket-ak 15 euro balio du, Sorginak Tabernan edo taldekideei komentatuz eros daitezke, maiatzaren 4ra arte.

**Arakilgo Udalak gazteendako kooperazio beka deialdia egin du:** Garapen bidean dauden lurraldeetan kooperazioa helburu duen gobernu kanpoko erakunde batekin lan egin nahi duten gazteei zuzenduta dago. Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 13an amaitzen da, informazio gehiago Arakilgo Udalean edo *www.arakil.eus* web orrian.

*iragarki@guaixe.eus*

*www.iragarkilaburak.eus*



## JAIOTZAK

- **Aya Saaba Miri**, apirilaren 23an Irurtzunen.

## EZKONTZAK

- **Jon Vitoria Etxeberria eta Patricia Fernandez Artigas**, apirilaren 27an Urdiainen.

## HERIOTZAK

- **Maribi Aldatz Navarro**, apirilaren 27an Etxarri Aranatz.
- **Luis Enrique Gonzalez Cuesta**, apirilaren 29an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IRACHE  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70  
@Grupolrache  
Grupolrache  
www.tanatoriosirache.es

## Irurtzango eta Altsasuko festetako kartel lehiaketak

Irurtzango eta Altsasuko Udalek festak iragarriko dituzten kartelen lehiaketak martxan jarri dituzte

### IRURTZUN

Uztailaren 17tik 21era ospatuko diren Irurtzango festetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatuta du Irurtzango Udalak. Proposamenak maiatzaren 27ra arte aurkez daitezke, udaletxean. Kartelean *IRURTZUNGO JAIK / Uztailak 17 - 21 julio - 2024 / FIESTAS DE IRURTZUN* testua agertu behar da. Guztira, hiru kategoria daude: haurren 5 eta 10 urte bitarteko haurrak eta 11 eta 14 urte bitartekoak, eta helduen modalitatean 15 urtetik gorakoak.

Lehiaketaren oinarri guztiak [irurtzun.eus](http://irurtzun.eus) webgunean.

Altsasuko Udalak ere irailaren 10etik 15era ospatuko diren festak iragarriko dituen kartelaren lehiaketa martxan jarri du. Bi modalitate daude: haurrena Altsasuko ikastetxetako LH eta DBH 1. eta 2. mailakoendako eta helduen modalitatea. Lanak ekainaren 17ra arte aurkez daitezke, Iortia kultur gunean. Kartelean *ALTSASUKO FESTAK / FIESTAS DE ALSASUA 2024* testua agertu behar da. Informazio gehiago [iortia.com](http://iortia.com)-en.



### BAZTERRETIK

ANNE AZKONA UNANUA

## Zer gosaldu lasterketa baten aurretik?

Lasterketa baten aurretik zer gosaldu dezakezuen jakiteko hainbat puntu garrantzitsu azalduko dizkizuet.

Lasterketa asko goizean goiz egiten dira, eta, horregatik, aurreko egunean edo egunetan zehar jaten dugunaz gain, garrantzitsua da lehiaketa edo probarako gosaria ondo planifikatuta edukitzea.

Hona hemen, kontuan izateko hainbat gomendio:

- Gosaria proba hasi baino 1-4 ordu lehenago egitea, digestioa egiteko denbora nahikoa izan dezazun. Duzun denboraren eta tolerantziaren arabera, zure gosaria ugariago edo urriagoa izan daiteke.

- Zure gosariak asimilazio errazeko karbohidratoetan aberatsa izan behar du, eta horrek esan nahi du integralak ez diren elikagaiak lehenetsi behar dituzula; hala nola, zereal zuriak, ogi zuria, zukuak, arroz edo olo edariak...

- Ez ahaztu hidratazio egokia funtsezkoa dela lasterketa baldintza onenetan hasteko. Edan baso bat ur esnatzean eta lehiaketara irten aurretik.

Isotonikoak ere edan ditzakezu, gatzak edota elektrolitoak eskuratzeko aukera gisa. Honetarako, ingurumen-baldintzak kontuan hartu behar dira.

- Ez dastatu ezer berria!

Probaren egunean, ez da lehen aldiz ezer dastatzen. Gosaria aurretik entrenamenduetan ere probatu behar duzu, digestio-mailako urduritasunak, ezustekoak, intolerantziak... saihesteko.

- Kafeinak eragin positiboa izan dezake zure errendimenduan, betiere aurretik probatu baduzu. Hala ere, ziurtatu digestio-arazorik sorrarazten ez dizula. Kafe, te edo osagarrien bidez eskuratu dezakezu.

- Digestioa errazteko, saihestu gantza eta zuntz askoko elikagaiak. Hauek digestioa moteltzen baitute, eta litekeena da lasterketan arazo gastrointestinalak sorraraztea. Proteinari dagokionez, digestio errazekoak sar ditzakezu, betiere zure tolerantziaren arabera.

- Hasi aurretik ere, karbohidrato estrea bat har dezakezu digestio errazeko zerbaitekin: deshidrataturiko fruta, isotoniko, fruta edo barrita batekin.

Gosari adibide gisa, kafea, ogi zuri tostada gazta fresko eta marmeladarekin, ezti edota irasagarrarekin izan daiteke milaka aukeren artean bat.



2024ko Oholtzara salto ekimenen parte hartu duten dantzari eta ikasleak.

## Oholtzara saltoren seigarren edizioa

Apirilaren 22tik 26ra dantza ikastaroak izan dituzte Altsasuko ikastetxetako eta Etxarri Aranazko ikastolako ehun ikasle baino gehiagok. Ostiralean emanaldia egin zuten; publikoaren aldetik errotu den emanaldi bat da

### ALTSASU

Bost egunez, Dantzaz konpainiako dantzari profesionalak Altsasuko institutuan, Iñigo Aritzta ikastolan eta Jesusen Bihotza ikastetxean eta Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolan egon ziren DBH bigarren (Altsasun) eta hirugarren (Etxarri Aranazten) ikasleei gorputz adierazpenari buruz dakitena erakutsiz. Dantzarien bidez, eta elkarlanean, talde bakoitzak, guztira zortzi, koreografia bat sortu zuten, eta apirilaren 26an, ostiralean, Burunda frontoian erakutsi zuten astean zehar egindako lana. Dantzaz konpainiak *YOUth* ikuskizuna egin zuen ikasleen emanaldia hasi aurretik, "telonero" gisa. Laura Gomez Dantzaz konpainiako kideak aitortu zuenez, "ez da erraza izan, adin zail batean daude, baina harro egoteko modukoa da".

Oholtzara salto programa due la sei urte sortu zuen Nafarroako Antzoki Sareak, Nafarroako Kuttaren eta La Caixa fundazioen laguntzarekin, gazteen artean

arte eszenikoak sustatzeko helburuarekin. Etxarri Aranaz, Altsasu eta Olaztiko kultur zerbitzu eta kultur etxeak sarearen barruan daude. Hortaz, programak bi helburu ditu: dantzarien egonaldiarekin gazteak arte eszenikoetan murgiltzea eta ikusle goari dantza eskaintza hurbiltzea.

Oholtzara salto ekimenaren eta Dantzaz Nazioarteko Koreografia Sorkuntzaren Zentroaren Dantzabideak programaren bidez dantzari profesionalak ikasleekin egoten dira eta elkarrekin koreografiak sortzen dituzte. Elkarlanean ere, abestiak aukeratzeko erabango dituzten arropak ere. "Oso aberasgarria da" esan zuen Gomez Dantzaz konpainiako

**GAZTEEK LOTSAK ETA BELDURRAK ALDE BATERA UTZI ZITUZTEN ETA ESZENATOKIAN DENA EMAN ZUTEN**

kideak. Sortutako koreografiak egonaldiaren azken egunean egiten duten ekitaldiaren pieza nagusiak dira. Ekimenaren emanaldia ez da beharrezkoa, eta gehienbat mutil asko falta izan zirela esan zuten penarekin dantzari profesionalak. Parte hartu zuten gazteek beldurrak eta lotsak alde batera utzi zituzten, eta eszenatokian dena eman zuten. Oholtzara salto! Dantzabideak ekimenak urtero geroz eta publiko gehiago biltzen du.

Ikasleen koreografiaren emanaldien aurretik Dantzaz konpainiako dantzariak *YOUth* ikuskizuna egin zuten. Wubkje Kuindersma koreografoak 2017. urtean konpainiarendako egindako emanaldi bat da, eta *You, zu, eta youth*, gaztetasuna, hitz joko bat da, eta denborak aurrera egin ahala dena aldatzen dela, baina barrualdean norbera dena galditzen dela adierazten du. Horretan oinarritu dira dantzariak ere ikasleekin elkarrekin egindako koreografiak sortzeko.



Irurtzungo Antzerki Tailerra. UTZITAKOA



Enara, Elsa eta Peio antzerki tailerreko kideak. UTZITAKOA

# Antzerki tailerra baino gehiago

'Un día en el campo' antzezlanaren mustuko du gaur, bihar eta etzi Irurtzungo Antzerki Tailerrak. Antzerki tailerrean beterranoak eta iritsi berriak elkartzen dira; antzerkiak "harrapatzen" dituela esan dute Enara Urria, Elsa Gutierrez eta Peio Aldaz kideek

**Erkuden Ruiz Barroso** IRURTZUN Irurtzungo Antzerki Taldeak gaur, bihar eta etzi eginen dituen *Un día en el campo* antzezlanaren emanaldietarako sarrerak agortu dira dagoeneko. Angel Saguesek zuzentzen duen tailerrak oihartzun handia du herrian. Urte asko daramatzatenak eta azken urtetan aritu direnak antzerki tailerraren "etapa berri batean" sartu dira, kartelean azaltzen zuten bezala. Enara Urria Albizu eta Peio Aldaz Augusto, esaterako, aurreko urtean hasi ziren tailerrean. Elsa Gutierrez Diezen lehenengo antzezlanaren izan da.

"Badaude pare bat hasieratik daudenak, urtero egon direnak, ia 30 urte daramatzatenak antzerkia egiten". Urria duela lau bat urte hasi zen lehenengo aldiz Irurtzungo Antzerki Tailerrean. "Txikia nintzanean amak

haurrendako antzerki tailer laburrak egiten zituen, baina antzerki tailerra hasi zenean nik ez nekien umeak edo gazteak sartu ahal zirenik". Arte eszenikoen batxilergoa egiten ari zela, herrikide batek esan zion tailerrean urte batzuk zeramatzala, "eta animatu nintzen. Ez zen bakarrik helduentzat, gazteagoak ere sartzea posible zen, hau zorte txarra, COVID-19a iritsi zela, "eta estreinatu aurretik konfinatu gintuzten". Lehenengo estreinaldia ezin izan zuten egin Urrak.

Ondoren, Urria Bilbora arte dramatikoaren ikastera joan zen, eta bertan egonda ezin zen Irurtzungera tailerreko bueltatu, "baina herrira bueltatu nintzanean argi neukan gauza bakarra zen tailerrera itzuliko nintzela". Bestela, antzezlanaren ikustera joango zela eta "inbidia" handia

pasako zuela esan du irurtzundarrak. "Herriko jendea izanda eta ikusleak ere herrikoak direnez sortzen den giroa izugarrikoa da. Obra ulertzen ez baduzu ere, etxe bat bezala bihurtzen da kultur etxea". Sarrerak egun batzuk lehenago agortu ziren, "beti betetzen da". Angel Saguesek sortzen duena ere miresteko modukoa dela esan du Urrak: "arte dramatikoaren ikastera joan nintzanean sarrera frogekin lagundu zidan. Bost edo sei tailer ditu eta urtero obra desberdin bat prestatzen du tailer bakoitzerako". Lan

**IRURTZUNGO ANTZERKI TALDEAK 'UN DÍA EN EL CAMPO' ANTZEZLANA EGINGO DU ASTEBURUAN**

egiteko modua ere "oso berezia" dela azaldu du: "Elkartzen gara adin oso desberdinetako hamazazpi pertsona astero, egun batean, bi ordu, eta barrezka pasatzen ditugu. Ez du inporta obra drama bat izan". Sortzen den sentsazioa "oso ona" dela esan du Urrak.

## Familia

Peio Aldaz aurreko urtean hasi zen antzerki tailerrean. "Valentzian ikasten egon nintzen, eta urte batez antzerki tailer batean egon nintzen". Aurretik tailerra ezagutzen zuen, "baina ez nuen inoiz sartzeko bultzadarik izan". Laz lankide batek komentatu zion, "eta animatu nintzen". Hala ere, "zerbait" bazuen. "Oso polita izan da, eta gure artean oso harreman polita sortu da. Ez nuen espero". Aldazek taldearen belaunaldi artekoa goraiatu du. "Adin guztietako pertsonak gaude eta haien artean pertsona oso bereziak aurkitu ditut". Haien artean "ikasteko aukera" ematen duela esan du Aldazek ere. Musztzearen aurrean Aldaz "urdu-ri" dago, baina oholtzara ateratzen direnean "guztia gelditzen" dela aipatu du, "eta dena ateratzen da".

Bakoitzak "zerbait ematen" duela uste du Elsa Gutierrezek ere. Antzerki tailerrean bere lehenengo urtea da. Duela lau urte iritsi zen Palentziatik Irurtzungera, eta ez zuen antzerki tailerra ezagutzen. "Txikitan eskolan antzerkia egin nuen eta

beti pendiente izan dudana gauza bat izan da, gogo handia izan dut beti, eta aurten egingo nuela erabaki nuen". Antzerkiaren munduan "lan egitea" gustatuko litzaiokeela esan du, "baina gauza bat eta beste uzten duzu". Tailerrean parte hartzen duen auzolagun batek tailerrari buruz hitz egin zion, eta parte hartzera animatu. Hasieran "lotsa handiarekin" hasi zen, "oso ongi egiten dutelako, urte asko daramatzate", baina oso pozik dago, baita estreinaldiaren aurrean urduri eta ilusionatuta ere. Datorren urtean jarraitzea espero du; tailerrean parte hartzera animatu du.

*Un día en el campo* antzezlanaren sortzeko denbora gutxi izan dute. Tailerra irailean hasi zuten, baina lehenengo bi hilabeteetan aurreko antzezlanaren emanaldiak egin zituzten. "Lehenengo egunetan Angelek galdetzen digu ea aurtengo montajerako ditugun perspektibak, aukerak, eta drama edo komedia nahiago dugun. Nahi duguna edo ez ateratzea beste gauza bat da". Datu bilketa egiten dute eta interpretazio ariketak egiten hasten dira. Aurten ere dantza sartuko dutela gaineratu du Aldazek, eta mugimendu ariketak egin dituzte ere. Ondoren, Sagues testua egiten joaten da eta zatika prestatzen joaten dira.

Aurten gerraren inguruko satira bat prestatu du antzerki tailerrak; erridikulizazio bat.

# "Egunero egindako lana egi bihurtzea da saria"

Nafarroako Unibertsitate Publikoak sei sari berezi eman ditu 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan defendaturiko tesien artean. Osasun Zientzietan Mikel Lopez Saez de Asteasu altsasuarrak jaso du saria

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

## 1 Fisioterapia ikasketak egin ondoren, doktoretza egin zenuen. Zergatik?

Fisioterapia gradua NUPen, Tuteran, ikasi nuen. Bukatzean Bartzelonako Gimbernaten Masterra egin nuen. Geroxeago, NUPen Mikel Izquierdo eta Nicolas Martinez Velilla irakasleekin tesi doktorala egiteko aukera izan nuen, 2016tik 2019ra.

## 2 Zer baloratu zenuen horrelako erabaki bat hartzeko?

Irakaskuntza gustukonuela ikusten nuen, eta doktoretzak horri ateak irekitzen zizkion. Ikerketa mundua ere oso hurbil izan dut, horretan beti gogotsu ibili naiz; artikulua irakurtzen eta abar. Mundu horretan murgiltzea erabaki nuen. Gainera, Mikel Izquierdorekin aurretik lan egin izan nuen, beraz, berekin bidea errazago izan zen.

## 3 Zer egin behar da doktoretza egiteko?

Lehendabizi, kontzientzia hartu. Bide nahiko gorabeheratsua izaten da, eta gogotsu ibili behar zara. Momentu oso gogorak egoten dira. Azkenean, hiru edo lau urteko bidea da. Doktoretza ikasketak egiten dituzunean errutina ikasi, ikasi eta ikasi izaten da. Nik beti esaten dut jakin-min puntu bat behar duzula ere. Ordenagailuaren aurrean ordu asko eman behar dira artikulua irakurtzen, eta hortik aurrera, pixkanaka-pixkanaka, gaitasunak hartzen dituzu. Zure lanak idazten eta egiten joan behar zara, jakintzak berritzen edo berriak sortzen. Azkenean tesia garatzen duzu eta, normalean, defendatzen duzun eguna oso polita izaten da.

## 4 Zer landu zenuen?

Nafarroako Ospitalean, Geriatria zerbitzuan, ariketa fisiko pro-



Mikel Lopez Saez de Asteasu altsasuarrak doktoretza sari berezia jasotzen. UTZITAKOIA

grama bat egin genuen. Adineko jendeak ospitalean sartzen denean eserita edo etzanda denbora asko pasatzen zuela ikusi genuen, eta programa hori aurrera eramaten hasi ginen. Multi konponentea da, eta emaitzak izugarriak izan ziren. Ikerketak oihartzun handia izan zuten munduan.

## 5 Nolako da doktoretza egiteko prozesua?

Hasieran gehienbat irakurri egiten dugu. Nolabait esateko, gai horri buruzko jakintza ikasi behar da. Hortik aurrera, datuak hartzen dira; zelaiko lana. Datuak dituzunean, analisi estatistikoa egiten dugu, eta emaitzak lortzen ditugu. Hurrengo pausoa zientziaren bidez barreiatzea eta zientzia komunitatean jakintza elkarbanatzea da. Artikuluak publikatzen saiatzen gara, eta lortutako emaitzak kongresuetan eta artikuluetan aurkezten ditugu.

## 6 Momentu gogorak daudela aipatu duzu. Noizbait uzteko momenturen bat izan duzu?

Uzteko momentu hori ez dut izan. Asteburutan eta jai egunetan lan egiten nuen, eta momentu horiek gogorak izaten dira. Baina emaitza pentsatu behar duzu. Emaitza hori jasotzen duzunean izugarriko poza sentitzen duzu, eta egindako lanarekin gustura gelditzen zara. Hori da ordain-saria. Egunero egindako lan hori egi bihurtzen da.

## 7 Alde onak, beraz, emaitza ikustea da.

Hori da. Tesia aurkezten duzun egun horretan familiarekin eta lagunekin elkarbanatzen duzu. Izugarriko eguna izaten da. Nire kasuan elkarrekin ospatu genuen. Oso-oso berezia izan zen. Bide batez, familiarekin eta lagunekin bazkari bat egitea oso interesgarria iruditzen zitzaidan. Iruñean pa-

rranda egiteko aukera izan genuen ere, beraz, niretako oso egun polita izan zen. Ederki ospatu genuen. Helburua bide gogor horri amaiera puntua jartzea izan zen.

## 8 Zer suposatzen du doktorea izateak?

Jakintzaren arloan doktoretza ikasketa azkenengo helburua da. Gai batean aditu bihurtzen zara.

## 9 Doktoretza ikasketak egitea gomendatzen duzu?

Beti. Motibazio puntu hori baldin baduzu, aurrera. Jakin behar duzu egoera gogorak izango dituzula, baita onak ere. Pertsonalki garatzeko aukera ezin hobe da. Horretan gaude NUPen, doktoretza ikasketak garatzen saiatzen eta laguntzen.

**10 Ikerketa jarraitzen duzu?**  
 Bai, horretan gaude. Nafarrabiomeden nago, gure ikerketa zentroa, eta NUPen barruan ere ikerketa lanak garatzen ditugu.

## 11 NUPen sari berezia jaso duzu, zer esan nahi du horrek? Espero zenuen?

2018tik 2020ra aurkeztu ziren tesien artean Osasun Zientzietan nire tesia epaimahaiaren iritziz erabaki dute hoberena edo aipagarriena dela. Izugarriko lanak egongo ziren, eta niretako poza izugarria da. Ez nuen espero. Gainera, 2019an defendatu nuen, pixka bat urrun gelditzen zen. Bat-batean berri polita jaso nuen, eta ospatzeko beste aukera bat izan zen. Oso pozik.

**ZATOZ GUREKIN festara**

**HERRIKO FESTETARAKO BEHAR DITUZUN EUSKARRI GUZTIAK PRESTATUKO DIZKIZUGU**  
 Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**gk** DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu  
 info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus